

## Herri mugimenduak eta militantzia ereduak



2012.07.09-10

 Joxemi  
Zumalabe



40. UDAKO IKASTAROAK

*Herri-mugimenduak eta militantzia ereduak.*

Eibarren, 2012ko uztailaren 9tik 10era

## AURKIBIDEA

1. Sarrera
2. Talde gogoetaren 1go saioa: Parte-hartze eta aktibismo soziopolitiko ereduaren inguruko eztabaida
3. Talde gogoetaren itxiera.
4. Hizlarien testuak
  - 4.1. Umorea eta sormenaren garrantzia Euskal Herrian emandako militantzia ereduetan. **Mikel Pikatza**
  - 4.2. Militantzia feminista: bilakaera, gorpuztasuna eta jabekuntza. **Mari Luz Esteban**
  - 4.3. Bilerak eta parekidetasuna. **Marije Apodaka**
  - 4.4. Gazteok eta politika. **Igor Ortega**
  - 4.5. Eta gazteok zer? **Amaia Nicholson**
  - 4.6. Sexu-genero harremanak gaztetxe eta gazte asanbladetan. **Pili Alvarez**
5. Partaideen helbideak

## 1. SARRERA

Bueltan doakizuen dokumentu honetan, 2012ko uztailean UEUko ikastaroen eskaintzaren baitan, Joxemi Zumalabe Fundazioak “Herri Mugimenduak eta Militantzia-ereduak” antolatutako mintegian egin zenituzten ekarpenak eta kolektiboki sortu genituen gogoetak laburbiltzen ditugu.

Herrikideen aktibazioa eta antolakuntza politikoa herri mugimenduaren kezka politikoa izan da aspaldidanik. Herri mugimenduak, azken finean, jendez eta pertsonaz elikatzen garen izate biziak gara, eta beraz, konpromiso pertsonala elikatzen duen talde-funtzionamendu egokia topatzea, barne horizontalitatea bermatzea, eta kolektiboen arteko harremanak eta lan egiteko moduak zaintzea axola zaizkigun aferak dira.

Are gehiago kontuan hartzen badugu hainbat direla herriaren desaktibazio politikoa sustatzen duten indarrak. Izan ere, merkatuaren eta botere-egituren esparruetan nagusitasuna bereganatu duten eliteek pertsona eta herri subordinatu egin nahi gaituzte, egiteko eta eragiteko ahalmena kenduz edo murriztuz. Subjektibitate otzanak behar dituzte beraien mantenerako: etsipena eta konformismoa. Herri ekimenak duen erronketako bat da, beraz, kontzientzia politikoa lantzea eta subjektibitate inkorformistak, aktiboak eta eraldatzaileak eraikitzea, eta talde-funtzionamendu txukun baten bitartez etengabe elikatzea.

Noski, herri mugimenduen eta norbanako subjektibitatearen artean ematen diren hartu-eman horietan hainbat hari eta soka lotzen dira, eta hartu-eman hori ez da beti harmoniatsua. Zer ematen digu kolektiboetan parte hartzeak? Zer kendu? Nola sentiarazten gaitu? Nola uztartu talde-funtzionamenduak behar duen konpromisoa eta norbanakoen egoera aldakorra kontuan hartzea eta zaintzea? Nola bermatu kolektiboa eta aldi berean malgutasunez onartzea norbanakoen dibertsitatea militantzia eredu jakin bat exijitu barik? Nola antolatu parte hartze modu ezberdinen arteko harremana? Nola mantendu izaera ireki eta malgua jende gehiagorekin konektatu ahal izateko?

Galdera guzti hauek ez dira errezak erantzuten, baina jendartean eraldaketak ematen diren bezala aldatzen dira parte-hartze eta militantzia moduak, eta haiekin batera aldatzen dira herri mugimenduak ere. Kontutan hartu beharreko galderak dira, beraz, arestian aipatutakoak eta beste hainbat.

Joxemi Zumalabe Fundazioan, 18/98 epaiketa amaitu osteko berrantolatze prozesuan ari ginela, hainbat eragilerekin bildu eta beraien nahi eta kezkek entzun nahi izan genituen 2011. urtean zehar egindako hainbat saiotan. Militantzia eredu eta formen eraldaketa hainbat talde eta kolektiboen kezka bezala agertu zitzaigun, askok mahai gainean jarri nahi zuten galdera bezala.

Gaia mahai gainean jartzeak, ordea, ezinbesteko lanketa dakar. Are gehiago aipatu dugun bezala berau punta askoko izarra izanik, dimentsio ugariakoa. Gogoeta prozesua, beraz, zintzoa eta irekia izan behar duen hein berean, antolatua eta txukuna izan behar du, ez badugu nahi ezinegon eta kezka gehiagoren iturri izaterik.

Hori dela eta, kolektibo ezberdinen baitan eta baita kolektibo ezberdinetako jendea elkartzuz (Erreterian, Durangon, Gasteizen,...) gai honen inguruko gogoeta saio monografikoak burutu ditugu eta UEUko mintegi hau ere martxan daukagun prozesu honen baitan kokatzen dugu. Hausnarketa saio guzti horietatik jasotzen ari garen zuen ekarpenekin material eta tresna xume batzuk sortzeko asmoa daukagu, eta baita topaketa edo jardunaldi bat antolatzeko asmoa ere. Ideia da, azken finean, herri mugimenduko eragile ezberdinen eskura ipintzea barne funtzionamendua eta eragin politikoa indartzeko baliagarriak izan nahi diren gogoetak eta tresnak.



## Militantzia eredu en talde gogoeta



## ▪ Nortzuk parte hartu dugu ikastaro honetan?

Guztira 31 pertsona bildu gara UEUK Eibarren duen egoitzan. 14 emakume eta 17 gizon .Hauek izan dira partaideak:

Izena
▪ Mikel Pikaza Rodriguez
▪ Unai Txurruka Maiztegi
▪ Ainhoa Mendibil
▪ Imanol Larrañaga
▪ Arkaitz Martinez de Albeniz
▪ Tetxu Meabe
▪ Beñat Jauregi Artola
▪ Xabier Etxeberria
▪ Marina Sagastizabal
▪ Idoia Zengotibabengoa
▪ Miren Guillo
▪ Iñigo Rubert Rodriguez
▪ Oier Azkarraga
▪ Mikel Gomez
▪ Amaia Nicholson Gorostiaga
▪ Uxoa Anduaga
▪ Iker Sarriegi Etxabe
▪ Eneko Ibarguren Agirre
▪ Iraide Lejarreta Goyarzun
▪ Xabi Luke Astigarraga
▪ Aingeru
▪ Amaia Aurrekoetxea
▪ Olaia Hormaetxea
▪ Mari Luz Esteban
▪ Marije Apodaka
▪ Igor Ortega
▪ Pili Alvarez
▪ Jokin Azpiazu
▪ Olatz Dañobeitia
▪ Zesar Martinez
▪ Andere Ormazabal



## ▪ Nondik abiatu gara?

Abiapuntu bezala jolasa edo dinamika ludikoa egin dugu elkar ezagutzen hasteko eta talde bezala eratzen joateko. Izan ere, hizlariak eta gonbidatuak izan ditugu ere, denon ekarpen pertsonalak eta hausnarketa kolektiboa mintegiaren ardatz eta jakintza-iturri garrantzitsuak izan dira. Horrexegatik, talde-dinamika ezberdinen bitartez zentralitatea eman nahi izan diogu denon artean sortutako gogoeta kolektiboari.

Horixe izan da mintegi honek gidatu duen ezagutza-filosofia eta apustu didaktiko emantzipatzailea: ezagutza modu kolektiboan sortzea eta, guztion bizipen eta ideien kontrasteari balio emanez gure auto-konfiantza sendotu, formazio eta ezagutzaren alorrean ere subordinazio edo dependentzia harremanak/egoerak gainditzeko.

Hasierako aurkezpenak eta talde-osaketak jolasaren bitartez egin eta gero, beraz, talde txikietan banatu gara eta bertan norberak bere militantziaren gazi-gozen inguruko barne gogoeta egiteko aukera izan du. Hurrengo koadro honetan talde txikietan nabarmendu diren elementuak laburbiltzen ditugu.

GAZIAK	GOZOAK
<ul style="list-style-type: none"> <li>-“Aparatuaren” pisua eta urruntasuna</li> <li>-Arduraren bertigoa, “marroiak jatea”</li> <li>-Garratzitsuegi sentitzea (pertsonalki): “motxila”, ardura magnifikatua</li> <li>-Frustrazioaren kudeaketa, dena ala ezer ez. Kritika destruktiboa</li> <li>-Idealaren presioa</li> <li>-Enkorsetatua sentitzea ereduarekin: erabakiak hartzeko aukera gutxi</li> <li>-Helburuen araberako errekonozimendua</li> <li>-Betekada</li> <li>-Eredu zurruna</li> <li>-Egiturakiko dependentzia</li> <li>-Formazio itxia</li> <li>-Konpromiso maila handia</li> <li>-Lan banaketa desegokiak</li> <li>-“Bizitza pertsonala” batzuetan desagertu egin da.</li> <li>-Sentimenduak ez azaleratzea</li> <li>-Errepresioaren ondorio diren egoera asko eta asko</li> <li>-Beldurra</li> <li>-Nire buruari nigan ez zeuden parametroetan exijitzea</li> <li>-Sentimenduak tabu</li> <li>-Norbanakoan robotizazioa</li> <li>-Bilera amaigabeak</li> <li>-Estresa, liskarrak, erreta egotea, inertzia eta joerak</li> <li>-Inertzia</li> <li>-Egunerokotasunaren zurrinbiloa: praktika politikoa beste modu batean egiten EZ jakiteagatik sortzen den frustrazioa</li> <li>-Kontraesanak</li> <li>-Kanpotik egiten diren kritika gogorak, jendearengan ez iristearen ondorioz.</li> <li>-Mugimendu handietan goitik datorrena betebeharrak</li> <li>-Zurrinbilan sartu eta errealtatetik deskonektatu gehigizko ardurak hartuz.</li> <li>-Full time militante</li> <li>-Beste eremuetan (ikasketak, familia...) denbora kendu militatzeko</li> <li>-Bidelagunak eraman</li> <li>-Gauzak gaizki ateratzea</li> <li>-Estres denboraldiak</li> <li>-Garrantzitsuegi sentitu</li> <li>-Helburuen araberako errekonozimendua</li> <li>-Itxitasuna</li> <li>-Ardura gehiegi</li> <li>-Ezintasuna</li> <li>-Ez baloratua sentitzea</li> <li>-Eztabaida gehiegi</li> <li>-Maila pertsonalean gehiegi eragitea, ez jakitea bereizten.</li> <li>-Taldea berri batera sartzeko momentua eta zailtasuna.</li> <li>-Gaziki ulertzeak, haserreak.</li> <li>-Ideiak ez partekatzea eta gauzatzea</li> <li>-Konpromiso mailak ondo ez neurtzea. Gehiegi inplikatzeko</li> <li>-Eredu zurrunak eta perfil homogeneoak</li> <li>-Egiturakiko dependentzia (gizarte) partaidetza kanalizatzeko sormen eta inizatiba falta</li> <li>-Identitateak: besteekiko itxiera, “onbigozentrismo”</li> <li>-Formazio hertsia</li> <li>-Helburu urrunak, abstraktuak eta horien frustrazioa</li> <li>-Prozeduren estandarizazioa, monotonizazioa, disziplina</li> <li>-Delegazioa</li> <li>-Urteetan emakume bakarra taldean, askotan oso rol maskulinoak hartu behar izan ditut.</li> <li>-Taldearen izaerara moldatu</li> <li>-Ulerkortasun falta bizitzan sortutako egoera ezberdinetatik, lerrotik ateratzen bazara “kanpo” zaude, kanpoan sentitu</li> <li>-Exijentzia, “dena eman behar duzunaren” ideia hori.</li> <li>-Beldurra</li> <li>-Lan banaketa falta</li> <li>-Bakoitzak rol bat hartu eta hortik ezin mugitu, aldatu nahi izanez gero dinamika apurtu</li> <li>-Azalpen gehiegi eman behar dira, obligazioaren sentimendua.</li> <li>-“Amigismoa”, sektarismoa, errepresioari beldurra, isolamendua, bakardadea.</li> <li>-Ego-en borroka, nigatik hasita</li> <li>-Helburuak 2. plano batean gelditzea</li> <li>-Identitatea vs estrategia</li> <li>-Txintxetak</li> <li>-Danetarako egiturak</li> <li>-Ezinbestekoa sentitu, nobre zibilborretik, “motxileroak”</li> <li>-Nekea</li> <li>-Gatazkak</li> <li>-Botere mailaketa, ez ikusgarria</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>-Eraikuntza kolektibo aberastua</li> <li>-Elkartasuna, motibazioa, konplizitatea, ni neu sentitu</li> <li>-Subjektu eraldatzaile sentitu.</li> <li>-Elkarlana, gauzak egitea baino nola egiten diren.</li> <li>-Elkar ezagutza, identifikazioa</li> <li>-Formazioa, bizi esperientzia</li> <li>-Partaidetza bideratzeko egitura.</li> <li>-Kolektiboaren indarra eta sendotasuna</li> <li>-Pertsona moduan garatzeko plataforma</li> <li>-Jendea ezagutu izana</li> <li>-Herriari eman zaion kolore eta bizitasuna</li> <li>-Bizitako momentu asko</li> <li>-Egoera askori aurre egiteko tokia eta bidea erakustea.</li> <li>-Lagunak eta jende zoragarria</li> <li>-Bizitzan militantziatik kanpoko une askotan jokatzeko pautak ikasi ditut</li> <li>-Arrazionaltasuna</li> <li>-Kolektibo izaera</li> <li>-Autokritikarako gaitasuna</li> <li>-Nire buruarengan konfiantza.</li> <li>-Jende interesgarria ezagutzeko aukera</li> <li>-Sormena, idazkera, jende aurrean hitz egiteko gaitasuna ... landu.</li> <li>-Betetzen nauten gauzak antolatuta</li> <li>-Autoestima, nobre buruan seguridadea garatu.</li> <li>-Bizitza proiektua.</li> <li>-Formazioa: politikoa eta lan-moduak</li> <li>-Ezagutza: jende ezberdina, erreferenteak, identifikatuta sentitzen zaren lagunak</li> <li>-Norberaren zailtasunak ezagutzeko aukera</li> <li>-Helburuak betetzeko orduan lortzen/sentitzen den satisfazio pertsonal nahiz kolektiboa</li> <li>-Jendea ezagutu eta horiekin eragiteko dagoen gogoia konpartitu eta proiektuak lortzen direla ikustea.</li> <li>-Bizitza eredu alternatiba bat egiteko aukera</li> <li>-Ikasitako guztia, jendea ezagutzea eta garaipen txikiak</li> <li>-Lagunak, formazioa, satisfakzioa</li> <li>-Aldaketa, pertsona mailan urteak pasatu ahal.</li> <li>-Adiskidetasuna</li> <li>-Lortutako helburuak konpartitzea</li> <li>-Herriari ematen diozun bizitasuna</li> <li>-Pertsona ezberdinekin lan egiteko “gaitasuna” aniztasuna</li> <li>-Parte hartzea bideratzeko bitartekoak eskuratzea, jabeak izatea</li> <li>-Elkar ezagutza/identifikazioa, arazoaren izaera kolektiboaz kontzientzia eta erantzunkizuna.</li> <li>-Ekarpen propioa eta txikien asebetetzea</li> <li>-Babesa, elkartasuna, elkarlana.</li> <li>-Laguntasuna, harreman sareak, laguntza behar izanez gero sare fuertea eta zabal</li> <li>-Esperientzia oso positiboak, gauzak aldatzen ari zarenaren sententzioa</li> <li>-Identitatea, izaera bat ematen dizu. Bizitzeko gogoak eta grina piztu.</li> <li>-Zure burua erronka zein zailtasunetan ikusi, nolabait zure potentzialtasunak probatzen dituzu.</li> <li>-Egoera limiteak bizi, adrenalina.</li> <li>-Herri sentitzea, mugimendu eta aldaketa sententzioa</li> <li>-Kidetasuna</li> <li>-Ikasketak prozesua, esperientzia trukaketa</li> <li>-Garapen pertsonala, pentsatzen ikastea</li> <li>-Harremanak egiten ikasi</li> <li>-konplizitatea</li> <li>-Ekipoa, elkarlanaren indarra</li> <li>-Adiskidetasuna</li> <li>-Errotzea</li> <li>-Ardurei aurre egiteko gaitasuna ikasi</li> </ul>

Militantziaren alderdi negatiboa aztertuz gero, zerrendatutako elementu guztien artean hiru multzo nagusi ezberdindu genituzke. Lehenik eta behin, egiturari lotutako ezaugarriak ditugu; zurruntasuna, itxitasuna, goitik behar dinamikak eta egiturarekiko dependentzia sarritan azaltzen dira.

Bestetik, bigarren multzo batean, aurrez aipatutako malgutasun ezak eragindako lan egiteko moldeak izango genituzke; prozeduraren estandarizazioa, monotonizazioa, disziplina, konpromiso maila altua edota full time



ereduak ere errepikatzen diren elementuak dira. Eta azkenik, sentimenduen edota subjektibitatearen multzoa izango genuke, alderdi emozionalarekin lotzen ditugun elementu hain zuzen ere; Errepresioari beldurra, bakardadea, ezintasuna, betekada, nekea, estresa...

Gozen atalean aldiz, jabekuntza pertsonal eta politikorako eskola garrantzitsu bat dela ondorioztatzen da behin eta berriro. Aktibismo politikoak, talde identitatea eta elkarlanerako indarra eta gogoia emateaz gain, sozializatorako eskaintzen dituen aukeren inguruan ere aritu gara.

**Eztabaida eta gogoetarako tartea**

Talde txikietan militantziaren gazi gozen erreposoa egin ondoren bi galdera hauen inguruan aritu gara:

*Zeintzuk dira nabarmendu edo indartu nahi ditugun elementu nagusiak? (hiru lehenetsi)*



*Zer da gaur egun aldatu edo saihestu nahi duguna?*

Talde bakoitzak nabarmendu edo indartu eta saihestu beharrekoak adostu ditu. 2. ariketa hau amaitu ondoren, talde handian elkartu gara, ekarpen guztiak komunean jarri eta eztabaidatzeko asmoz.

**Zeintzuk dira nabarmendu edo indartu nahi ditugun elementu nagusiak?**

**Zer da gaur egun aldatu edo saihestu nahi duguna?**

1. taldea	<ol style="list-style-type: none"> <li>Kidetasuna, kolektibotasuna: taldeko partaide izatea, ezberdinen arteko elkarlan gisa. Proiektu berdina</li> <li>Auzolana. Beste logika, merkatutik kanpo.</li> <li>Garapen pertsonala eta kolektiboaren arteko uztarketa</li> </ol>	<ol style="list-style-type: none"> <li>Militantzia eredu bakarra. Ekarpen totala edo ez ez-logika. Militantzia eta bizitza, eremu banatu eta bateraezina.</li> <li>Kritikotasun falta, automatismo, inertzia, eboluzio falta</li> <li>Itxitasuna, izaera endogamikoa, zurruntasuna.</li> </ol>	
	<ol style="list-style-type: none"> <li>Sortzen diren harreman pertsonalak.</li> <li>Ikasteko aukera, bizitzarako eskola eta garatzeko bidea (bizitzaren aurrean posizionatzeko modua)</li> <li>Dena serio izan barik ematen dizkigun gozamenerako momentuak. Eta plazer momentuak</li> </ol>	<ol style="list-style-type: none"> <li>Horizontaltasunean botere harremanak ez esplizitatzea</li> <li>Etsipena eta frustrazioa: porrotak, inertiak, rolak, komunikazio falta.</li> <li>Inertzia eta errutinak, ekintzak eta hausnarketaren arteko desorekak.</li> </ol>	2. taldea
3. taldea	<ol style="list-style-type: none"> <li>Harremanak, heziketa esparru handia.</li> <li>Elkartasuna</li> <li>Bakoitzaren eta kolektiboaren lanaren baliogarritasuna.</li> </ol>	<ol style="list-style-type: none"> <li>Full time militantzia eredu.</li> <li>Militanteen jarrera, rola, eredu, balore ... (Pertsonen harremanen gainen sortzen da mugimendua)</li> <li>Errepresioa, beldurra</li> <li>Jendea "erre" dugu.</li> </ol>	
	<ol style="list-style-type: none"> <li>Elkartasuna eta konplizitatea</li> <li>Auto-errealizazioa pertsonala</li> <li>Burutzen den baino nola egiten den nabarmenitze, prozesuaren garrantzia.</li> </ol>	<ol style="list-style-type: none"> <li>Egituraren zurruntasuna eta ondorioz subjektibitatea azaleratzeko muga.</li> <li>Frustrazioaren kudeaketa nola bideratzen ez jakitea.</li> </ol>	4. taldea
5. taldea	<ol style="list-style-type: none"> <li>Adiskidetasuna, harremanak sortu</li> <li>Kolektibitatea, balio kolektiboak</li> <li>Auto-errealizazioa</li> </ol>	<ol style="list-style-type: none"> <li>Inertzia</li> <li>Norbera eta taldea</li> <li>Lan banaketa</li> </ol>	

Talde bakoitzak adostu dituen elementuak komunean jarri ondoren, eztabairako tarte irekia zabaldu dugu, hauek dira bertan aipatutakoak:

- Taldeetan pertsona eta kolektiboaren artean egon ohi diren desorekak lantzeko beharra aipatu da. Partaide batzuen arabera, konpromiso maila ezberdinen arteko elkarbizitza eta etengabeko elkarriketa desorekak lantzeko aintzat hartu beharreko elementuak dira.
- Militantzia ezin dugu esparru politikora mugatu, egunerokotasunera zabaldu beharra dago, egunorokoa ere politikoa baita. Mugimendu feministak historikoki landu duen gaia da hauxe.
- Nola eraiki praktika politiko berri bat egunerokoa? Militantzia kolektiboekin gehiegi lotzen dugu eta pertsonak zentralitate handiagoa lortu beharko luke. Pertsona moduan ditugun balore, sentimendu eta jarrerak aztertuz.
- Batzutan ona da kolektibo batekin amaitzen jakitea.
- Konpromiso ezberdinak hitz egin eta onartu beharra dago talde-lanean sortzen duten desorekak batzuen haserreak edo besteen “erretzea” ekarri barik.
- Rolak tarteka berrikustea. Gogoeta zabaltzea rolen inguruan: zein da bakoitzak hartzen duena? Zer moduz? Gustora zaude?
- Ez ematea ezer bukatutzat, funtzionamenduak berrikustea.
- Kolektiboen arteko koordinazioak neke handiak sortzen ditu, batera joatearen moduaren inguruan gogoeta egin beharra dago.

Idea zaparrada honekin, talde gogoetaren lehenengo atala amaitutzat jo dugu.

Ondoren, eguna borobiltzeko, hiru gonbidatu izan ditugu hizlari lanetan: Mari Luz Esteban, Mikel Pikaza eta Marije Apodaka. Bakoitzak aktibismo politikoa eta talde-funtzionamendua birpentsatzeko eta gure talde gogoeta zabaltzeko aberasgarria den aspektu bat jorratu du, hurrenez hurren: gorputzasuna, humorea eta elkarren zaintza bileretan.

Mari Luz Estebanek militantzia feministaren inguruko gogoeta aurkeztu digu, bilakaera historikoa eta bilakaera horretan **gaitasunen lanketa, jabekuntza zein gorputzasuna** izan duten garrantzia. Gorputzaren lanketak beste betaurreko batzuk, beste begirada bat ematen digu, militantzian gaitasun guztiak lantzeko aukera zabaltzen du: kognitiboak, emozionalak, politikoak, fisikoak,...

Mikel Pikazak herrigintzan **umorea eta sormenak duten garrantzia** azpimarratu digu. Sormen artistiko-kultura eta jarduera politikoa batera datozenean oso uztarketa emankorra da herri mugimenduarentzat. Hain zuzen ere, bere balio kohesionatzaileagatik (jendea erakartzeko, konplizitatea sortzeko eta batzeko gaitasuna); ideologia transmititzeko eta kritika politikoa egiteko modu eraginkorra izateagatik (beste modu batez iristeko aukera ematen du); eta umoreak ere erabilera terapeutikoa duelako, gure burua zaintzeko aukera ematen digu.

Marije Apodakak **bilerak zer diren eta genero-ikuspegitik bileretan zer gertatzen den** hausnartzeko aukera eskaini digu. Bilerak harreman-ekosistema baten tresna bezala ulertuta, berdintasuna eta giro ona zaindu nahi badugu ondorengo hauek izango dira zaindu beharreko elementuak: denbora, espazioa, komunikazioa (ez ahozkoa barne) eta rol zein lan-banaketa (paperak eta funtzioak ez geratzeko pertsona berdinen finkaturik). Baita hasi aurretik eta bilera ondoren taldearen eguraldia nola dagoen agertzea (eguzkitsu, hodeitsu, ekaitza, galerna,...), eta nola sentitzen garen agertuz, espazio segurua sortu elkarren zaintzaren bitartez.

Ekarpen horiekin amaitu dugu ikastaroaren lehenengo eguna.





## Talde gogoetaren itxiera



Hurrengo goizean gazteen errealitateari begira jarri gara. Politikaren pertzeptzioa gazteen begietara, belaunaldi berrien aktibazio politikorako kontuan hartu beharreko aspektuak eta politikoki antolatzeko modu eta jarreraren inguruan jardun gara. Etabaidarako proposatu ditugun galdera honako hau izan da: eta gazteek ze ekarpen berri egiten diote militantziaren praktikari?

Hiru gonbidatu izan ditugu oraingo honetan ere gure hausnarketa akuilatzeko: Igor Ortega, Amaia Nicholson eta Pili Alvarez. Igorrek gazteek eta parte hartze politikoari buruzko ikerketa-lana aurkeztu digu, Gipuzkoako gazteekin 2009-10ean eginiko lan kuantitatiboa eta kualitatiboa gazteen oinarritzko balioei buruz eta inplikazio zein parte hartze politikoari buruz. Amaiak "Eta Gazteek zer" izeneko lana aurkeztu digu, 2010-11n gazteek gazteontzat egindako ikerketa eta gogoeta gazteriarengan gertatzen ari den bilakaeraren inguruan. Eta Pilik Gaztetxe eta Gazte Asanbladetan nolako genero-harremanak ematen diren aztertzen duen ikerketa aurkeztu digu.

#### ▪ Talde gogoetaren itxiera saioa

Gazteriaren inguruko ikerketa ezberdinen berri jaso ondoren, eskulturen dinamikarekin itxiera saioa abiatu dugu. Talde txikietan bi egunetan landutako edukien zerikusia duen eskultura dinamiko edo estatiko bat irudikatu behar izan dugu. Hauek izan diran irudikatu diren eskulturak:



#### ▪ Ondorioak eta itxiera

Antzerki taldeak baliatu ditugu hurrengo bi galdera hauek talde txikietan lantzeko:

1. Zeintzuk dira militantziaren erronka nagusiak, aurrez landutako ikuspuntuak kontuan izanda?
2. Ze tresna edo baliabide sortu beharko genuke aipatutako helburu edo erronkak lortzeko?

Zoritxarrez, ez dugu tarte nahikorik izan talde lana partekatu eta hauen inguruan etabaidatzeko. Halere hauek dira, fitxetan jasota gelditu diren erantzunak:

#### Erronkak:

- Formazioaren beharra
- Beste antolaketa ereduak aztertu.
- Elkarzaintzari erreparatu eta landu. Pertsona eta taldeen mantenimendua
- Militante ez militante dikotomiarekin apurtzeko bideak sortu
- Sormenari arreta handiagoa eskaini gure jardun politikoan

- Zurruntasunarekin apurto eta lan egiteko modu berriak ahalbidetu
- Umorearen aplikazioa: ondo pasatzea eraldaketaren baitan txertatzea
- Sormenari espazioak eskaini
- Militantzia eredu desmaskulinizatu. Lanketa feminista ikuspegi integrala izatea talde orotan.
- Gorpuztasunaren lanketari garrantzia ematea.
- Protokoloa. Formazio gogoetarako tresnak sortu
- Ezagutza kolektibizatzea
- Herri ikerketak sustatu
- Espazio seguruak sortu
- Pertsona, bere integraltasunean, erdigunean ipini, militantziaren erdian.
- Militantzia berdefinitu
- Beldurra galdu
- Kontraesanak onartu
- Etengabe kanpora eta berrura begirako begiak
- Elkarren zaintza
- Dependentziak apurto/malgutu
- Talde ikasketa sustatu
- Aniztasunetik lan egin
- Lan eskemak aztertu eta garai hauetara egokitu
- Prozesuari garrantzia eman
- Umorea dogmak hausteko tresnak

#### Tresnak:

- Barruko hausnarketa edo autokritika egitea beti bileretan egon barik ere. Praktika erreflexioa landu.
- Gune informalak sortu (itxiak eta irekiak)
- Egiteko moduak aldatu eta auzoko edo herriko sortzaileekin sareak sortu.
- Bilerak emankorrak eta atseginak (laburrak) egiteko trebatzea, rolak aldatu.
- “Meteorologia” gai ordenean integratzea
- Formazioa gorpuztaren izaera politikoaren kontzientzia izateko.
- Sormena lantzeko baliabide iraunkorrak sortu
- Kontzientzia landu eta sormenaren balio iraultzailea azpimarratu
- Espontanitateari ateak ireki
- Batzarrak dinamizatzeko metodologia landu



Elementu guzti hauetan gehiago sakontzeko tartea falta izan zaigu baina, sarreran aipatu bezala, UEU-n antolatutako mintegi-ikastaro hau, irekita jarraitzen duen gogoeta-prozesu zabalago baten parte da. Beraz, Militantzia Ereduen inguruko prozesu horrek izango dituen ondorengo mugarrietan ere parte hartzeko gonbitea jasoko duzue eta elkarren berri pozgarri bat edukitzeaz gain gai hauetan gehiago sakontzeko aukera izango dugu. Mila mila esker zuen ekarpenengatik eta alaitasunagatik !!

#### ▪ Eta amaitzeko

Eta amaitzeko ikastaroaren balorazioa egin dugu, hauek dira fitxetan jasotzeko iritzi guztiak:

Zer da gehien gustatu zaizuna?	Eta gutxien?
<ul style="list-style-type: none"> <li>-Astelehen goizean izandako hitz-hartze, hausnarketa eta azalpenak</li> <li>-Kritika eta autokritika ahalbidetu eta sustatu izana. Azken finean, askotan gure inguruan aipatzen edo kuestionatzen ez ditugun zenbait aspektu jorratu ditugu, ardura eta zalantza bera duten beste pertsona batzuekin.</li> <li>-Ikastaroa bera orokorrean: metodologia, hizlariak, ...</li> <li>-Egun hain garrantzitsua den gaiari buruz eztabaidatzeko tartea izatea. Arlo desberdinak jorratu ditugu eta ikuspegi ona osatu dugu.</li> <li>-Ikuspegi trukaketa, beste mugimendu batzuen berri zuzena izatea</li> <li>-Feminismoari ekarpenak jasotzea</li> <li>-Lan gaia bera. Talde txikiak lanketa</li> <li>-Oso gai errealak landu ditugula, herri mugimenduetan benetan ematen diren dinamika.</li> <li>-Uste dut hausnarketarako aukera oso egokia ematen duela. Gure mugimendu ohietan txertatu daitezkeen gakoak agertu dira.</li> <li>-Metodologia: talde dinamika erabiltzea, talde txikiak, jolasak ... Betiko “txapa entzun eta listo” eskemarekin aurtuzeara.</li> <li>-Sormena landu: sormen ariketa egitea ikusteko denok burutu dezakegun gauza dela.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>-Umorearen eta bileren azalpenak hankamotz sumatu nituen.</li> <li>-Denboraren kudeaketa. Uste dut pena dela hainbat gai joratzeko denbora gehiago eduki ez izana, baina espero daitezkeen zerbait da, beti gertatzen zaigu ...</li> <li>-Harrera,, jokoak ... Dinamikak (elkar ezagutza ...)</li> <li>-Ariketa batzuk talde handian egin ditugu eta talde txikian egin behar genituela uste dut.</li> <li>-Denbora. Moztu (interbentzioak) behar izatea.</li> <li>-Asteleheneko saioa luze joan dela</li> <li>-Hizlari bakoitzak eta bere gaiaren inguruko eztabaida tarte gutxiago izan du.</li> <li>-Taldea handitan hitz egiteko orduan.</li> <li>-Azalpen batzuen ondoren eztabaidarako tarte motza iruditu zait, pentsatu dut, galdera edo egoera batzuk botatzen badira eztabaidak gehiago eman dezakeela.</li> <li>-Batzuetan gure praktika politikoaren inguruko hausnarketak egin beharrean oso teorikoak (ezer konkretua planteatu barik) izan diren interbentzioak egin dira.</li> <li>-Denak iruditu zaizkit interesgarriak, baina adibidez une batean eztabaida moztu eta bideoa jartzea ez zait egokia iruditu. Behin horrelako talde jatorra bilduta, gure arteko gogoetari denbora gehiago eskainiko nioke. Bideo nahikoa badaude sarean!)</li> </ul>

<ul style="list-style-type: none"> <li>-Denbora gutxian taldean sortu den konfiantza, iruditzen zait asko laguntzen duela hausnartu ondoren ideiak azaltzeko.</li> <li>-Asanblada eta bileren funtzionamendua hobetzeko tresnak ikasi izana.</li> <li>-Gehien gustatu zaizkidan uneak talde txikietan edo handian gure artean izandako eztabaidak eta azalpenen esan dena. Honez gain, Igor Ortega eta Mari Luz Estebanen hitzaldiak azpimarratuko nituzke.</li> <li>-Taldea dinamika. Aberatsak eta emankorrak iruditu zaizkit edukian eta baita harremanen sorreran ere.</li> <li>-Giroa, bazkaria, emaitzak, eztabaida, hitzaldiak, sakontasuna, esperientzia multzoa.</li> <li>-Edukiak eta hauekarako metodologia. Hizlariak nola planteatu duten gaia.</li> <li>-Ikastaroaren gaia bera, eman diren ezagutza aportazioa, erabilitako metodologia.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>-Denbora falta. Hitzaldien ostean, gehiago hausnartzeko denbora utziko nuke. Batzuetan bi hitzaldi elkartzean (segidan egitean) giroa hoztu eta burutazioak galdu direla uste dut.</li> <li>-Atzo arratsaldean huts egitea.</li> <li>-Ikastaro-osteko eskaintza falta. Kontatzen zen nola iraganean UEU ikastaroak baino gehiago zela</li> <li>-Badakit zuen esku ez dagoela, baina bururatu zaidana: autobus zerbitzua.</li> <li>-Gauza gehiegi denbora gutxian. Edukiz beteegia nire ustez, patxaraz gai parte bat ongi jorratu ezkererako eraginkorrago izango litzateke. Abiadura, estresa, ordutegiekin hautsi!</li> </ul>
<p><b>Aldatuko zenuke zerbait?</b></p>	<p><b>Zer ikusi duzu faltan?</b></p>
<ul style="list-style-type: none"> <li>-Bilera genero ikuspegitik aztertzeko orduan dena modu orokorreki batean jaso nuela iruditu zitzaidan; aztertu gabe mila bilera mota desberdin daudela eta horren arabera dena aldatzen dela</li> <li>-Denbora gehiago izanez gero agian ...</li> <li>-Puntualtasuna: jarduera puntual hasi eta puntual bukatzea beharrezkoa da!</li> <li>-Orduetia: astelehenean 18tan bukatu dugu eta asteartean 14etan.</li> <li>-Espazioa egokiagoa izan daiteke</li> <li>-Hizlarien (gonbidatuak) arteko denbora tarte zabaltzea (arrapaladan joan direnaren sentsazioa daukat)</li> <li>-Orduak hobeto errespetatu</li> <li>-Azkeneko ondorioei garrantzi eta tarte gehiago eman.</li> <li>-Ikastaroa unibertsitatearen inguruan mugitzen den jendearentzat antolatuta dagoela esango nuke eta hori aldatuko nuke, beste pertsona batzuk gonbidatuz adibidez.</li> <li>-Edo ikastaroa luzatuko nuke, edo edukiak laburtuko nituzke. Presa lagun txarra da militantzian, eta hemen ere nahiko presaka ibili gara, eduki asko denbora gutxian landu nahian. Nahiago nuen eztabaida batzuk gehiago sakontzea.</li> <li>-Bloke batzuk hausnarketa sakonagoa beharko luke, denbora dedikazio gehiagorekin</li> <li>-Agian denbora gehiagorekin landu daiteke baina baliteke beste testuinguru baten, herri mugimenduan bertan.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>-Denbora! kar-kar ... nik denbora gehiago ere gustura emango nuke honetan.</li> <li>-Ziur nago hausnarketa ugari falta izan direla baina mundua ez da bihar bukatzen eta egongo da gero ere horietarako astia!</li> <li>-Sormena gehiago lantzea, funtsezkoa iruditzen baitzait, arazoei tresna berriekin erantzutea.</li> <li>-Beste perspektiba bat duen jendea (baina hori ez dago zuen esku)</li> <li>-Lehenengo eguneko lehen orduan ikastaroaren programa banatzea eta ez astelehen arratsaldean (azken orduan)</li> <li>-Pil-pilean dauden gaien inguruko hausnarketa: desobediencia zibila, okupazioa, eraso sexisten aurrean zer egin ...</li> <li>-Militantzia ikuspegi psikologikotik aztertzea, pertsona gehiago begiratzea. Psikologo baten hitzaldia adibidez ondo legoke.</li> <li>-Kurtso honek benetako arrakasta izango luke baldin eta bere partaideen arten militantzen (ofizialki edo formalki) ez duen jendea hitz egitera ekarriko balu, hala nola, bere entzuleen artean ere. Atera den ondorio nagusietariko bat beste gazteen errealitate horretan fijatu beharra izan baita. Interakzio polita litzateke.</li> <li>-Denbora. Aniztasun handiagoa: Hau da, euskarazko militantziaren inguruko gogoeta batera, seguruenik, badakigu nondik datorren jendearen gehiena.</li> <li>-Gerora begira eta errealitatera (herri mugimenduetara) eramateko (lagungarria izan daitekeen euskarri teorikoak.</li> </ul>
<p><b>Oharra:</b></p>	
<ul style="list-style-type: none"> <li>-Lan ona eta polita diharduzue egiten eta segi! Plazer handi bat izan da</li> <li>-Oso ondo egon da! Eskerrik asko!!</li> <li>-Orokorrean herri mugimenduen barne dinamizak hausnartu eta beharra nabarmendu dugula baina beraz herri mugimenduaren kanporako ekintzekin txertatzen joatearen zailtasuna.</li> <li>-Segi horrela!</li> <li>-Zorionak egiten ari zareten lanagatik!!</li> <li>-Ikastaroaren dokumentuaren zain gelditzen naiz. Nire inguruan lanketa egin ahal izateko.</li> <li>-Gai hauen inguruan mintegi gehiago antolatuko nituzke. Oso balorazio positiboa egiten dut. Zorionak hau antolatzearen.</li> </ul>	

**Milesker guztioiiii!!!**



## Hizlarien testuak



Ikastaroan zehar landu diren begiradak:

1. **Militantzia feminista: bilakaera, gorpuztasuna eta jabeakuntza.** Mari Luz Esteban
2. **Umorea eta sormenaren garrantzia Euskal Herrian emandako militantzia ereduetan.** Mikel Pikatza
3. **Bilerak dinamizatzea genero-ikuspegitik.** Marije Apodaka
4. **“Gazteok eta parte hartze politikoa”** Igor Ortega

[http://joxemizumalabe.org/images/testuak/gazteok\\_eta\\_politika\\_%5B2009%5D\\_kualitatiboa.pdf](http://joxemizumalabe.org/images/testuak/gazteok_eta_politika_%5B2009%5D_kualitatiboa.pdf)

5. **“Eta gazteok zer?”** Amaia Nicholson

[http://joxemizumalabe.org/images/testuak/liburuxka\\_etagazteokzer\\_web.pdf](http://joxemizumalabe.org/images/testuak/liburuxka_etagazteokzer_web.pdf)

6. **“Sexu-genero harremanak gaztetxe eta gazte asanbladetan”** Pili Alvarez

[http://joxemizumalabe.org/images/testuak/Relaciones\\_De\\_Genero\\_Y\\_Cultura\\_gaztetxes\\_CAPV.pdf](http://joxemizumalabe.org/images/testuak/Relaciones_De_Genero_Y_Cultura_gaztetxes_CAPV.pdf)





<b>Izenburua</b>	<b>Feminismoa, euskaragintzarako gogoeta-tresna?</b>
<b>Egilea</b>	Mari Luz Esteban
<b>Data</b>	2012/03/23

## **aurkibidea**

---

1. Euskal Herriko feminismoaren eraldaketak eta eskarmentuak .....	05
2. Politika feministen berriztapena eta jabekuntza kontzeptua .....	08
3. Agente/biktima bereizketa eta prozesuen azterketa .....	12
4. Gorpuztasuna ikerkuntza eta politika .....	14
5. Amaitzeko .....	16
6. Biografiak .....	17

## Sarrera

---

1980. urtean, medikuntza ikasketak egiten nengoela Euskal Herriko Unibertsitatean (UPV/EHU), Basauriko Emakumeen Taldean sartu nintzen eta bi urte geroago elkarte horrek bultzaturiko famili plangintza zentroan<sup>1</sup> hasi nintzen lanean. Ordutik hona hainbat ekimen feministatan parte hartu dut. Azken hamarkadetan, gizarte antropologia izan da nire lan-esparrua, ikuspegi feminista batetik bideratu duta<sup>2</sup>.

Beste aldetik, Basaurin (Bizkaia) hezi eta hamabost urte nituela euskalduntzen hasi nintzen. Herri horretan “mirari” txiki baten lekuko izan naiz, hogeita hamar urteetan euskaldunen kopurua bikoiztu baino gehiago egin baita<sup>3</sup>. Txikia nintzenean, Espainiako etorkinen olatuen artean bizi ziren familia euskaradun gutxiri *los aldeanos* edo *los vascos* deitzen zitzairen. Gaur egun, maketoen eta bertakoen seme-alaba asko eta asko euskaraz mintzatzen gara gure seme-alabekin.

Pasa den ikasturtean Mondragon Unibertsitateko HUHEZI Fakultateak eskaintzen duen Euskal Kulturgintzaren Transmisioaren Aditu Titulua (EKT) burutu nuen. Helburu bikoitzarekin matrikulatu nintzen: eremu horretan sakontzea eta nire ikerkuntza aukerak zabaltzea. Graduondoko horren eskolatan behin eta berriro topatzen nuen nire burua klaseetan entzundakoa eta feminismoan bizi izandakoaren arteko alderaketak egiten, hain ziren hurbilak azalduko gertaerak, eztabaidak, gatazkak, dilemak. Lerroburuetan behintzat, ia berberak.

Halere, “euskal kulturaz” ari garenean ez ditugu aintzat hartzen ez mugimenduaren ezta teoria feministaren nondik norakoak (ezta beste gizarte mugimenduenak ere ez). Eta alderantziz, feminismoan murgildurik gaudenean ez diogu erreparatzen “euskalgintzan” hausnartzen edo teorizatzen denari<sup>4</sup>. Zerikusirik izango ez balute edo testuinguru sozial eta kultural bereko fenomenoak izango ez balira bezala, nor bere eremu teoriko edo empirikoan finkaturik. Kanpoko eta nazioarteko adituak irakurri ohi ditugu, bai, baina gure inguru hurbilean dagoen baina gure alorrekoa ez den gogoetari muzin egiten diogu, gehienetan behintzat, ziur hor ez dugula probetxuzko ezer topatuko. Zergatik?

Jokabide horrek, nire ustez, teoria eta praxi politikoan edo kulturean aurrera egiteko aukerak murrizten dizkigu. Horregatik gustu handiz hartu dut jardunaldi hauen antolatzaileek feminismoaren inguruko zenbait ideia eta esperientzia hona ekartzeko gonbidapena. Adibide eta ariketa xume bat besterik izan nahi ez duena. Euskaragintzarako baliagarria izan daitekeelakoan baina jakinda ere esango dudaren aplikazio praktikoaz hausnartzeak nire ahalbideak gainditzen dituela.

Zertaz idatziko dut testu honetan?

---

<sup>1</sup> Famili Plangintza Zentroak 70eko hamarkadaren amaieran/80koaren hasieran sortu ziren Hego Euskal Herriko hainbat lekutan Mugimendu Feministaren eskutik, sexu heziketa eta antisorgailuen arloko informazio eta arretarako. Bilbokoak izan ezik sare publikoan sartu ziren 90eko hamarkadaren hasieran, baina denborarekin zerbitzu batzuk desagertu egin dira eta gelditzen direnen artean, oso gutxitan mantentzen dira bere horretan abiapuntuko filosofia eta emakumeak artatzeko modua.

<sup>2</sup> Gaur egun ikerkuntza feministak badu leku nagusia unibertsitate barruan eta kanpoan egiten den euskal antropologian, 80ko hamarkadaren hasieran Teresa del Vallek zuzenduriko lantalde batek hasitako ibilbidearen emaitza. Ikus del Valle et al. (1985).

<sup>3</sup> Ikus, adibidez, 1996an argitaratu zen “Basauriko Diagnosirako Datuak” txostena:

[https://www6.euskadi.net/r59-738/eu/contenidos/informacion/6921/eu\\_2431/adjuntos/basauri\\_d.pdf](https://www6.euskadi.net/r59-738/eu/contenidos/informacion/6921/eu_2431/adjuntos/basauri_d.pdf)

<sup>4</sup> Niretzako Euskal Herriko feminismoa, neurri handi batean behintzat, euskalgintzaren baitan legoke. Horregatik idazten ari naiz kakotxekin eta horregatik erabili dut artikulu honen izenburuan “euskaragintza” hitza eta ez ohikoa den “euskalgintza”.

Lehen zatian euskal feminismoaren bilakaeraren gainbegirada laburra egingo dut, gertaturiko eraldaketeki eta berritasunei lehentasuna emanez. Bertan, bi fase bereiziko ditut, XX. mendeko azken hiru hamarkadena, batetik; eta XXI. mendekoa, bestetik. Bigarren zatian, berriz, emakumeen heziketa, gizarteratze eta kontzientiazio feministari dagokien kontzeptu berriaz hitz egingo dut, jabekuntza edo ahalduntzea, hain zuzen, gure testuinguruan, udal mailan sortu diren Jabekuntza Eskolekin batera erabiltzen hasi garena. Horrez gain, kontzeptu hau abangoardiako teoria feministetan koka daitekeen gorputzaren eta emozioen teoriarekin elkar loturak egiten saiatuko naiz, boterearen inguruko zenbait ideiekin ere erlazionatuz.

Aldian behin, betiere nire argudio eta azalpenen harira, euskararen aldeko mugimendurako baliagarriak izan litezkeen zenbait galdera proposatzen joango naiz.

## 1. Euskal feminismoaren eraldaketak eta eskarmentuak

Sarreran esan bezala, Hego Euskal Herriko feminismoak<sup>5</sup> bizi izan duen bilakaera azaltzeko, bi fase bereiziko ditut: 70-90 hamarkadetakoa eta XXI. mendekoa. Hala ere, bereizketa marra hori behartua eta artifiziala ere bada, zeren aipatuko ditudan aldaketak ez baitira egun batetik bestera gertatu eta jarraitutasun maila bat ere badago bi aldien artean.

Ikusiko dugunez, azalduko diren hainbat elementuk feminismoaren mugak gainditzen dituzte, Euskal Herriko gainerako gizarte mugimendu edo ekimenetan ere aurkitu baitaitezke.

Zeintzuk lirateke XX. mende amaierako feminismoaren ezaugarri nagusiak?<sup>6</sup>

Mundu mailako deskolonizazio mugimenduak eta Frantziako 68ko Maiatzarekin batera indartu zen nazioarteko feminismoak eta Franko hil ondorengo giro politiko biziak eragin handia izan zuten kontzientzia feministaren hedakuntzan: garai haietan feminismora biltzeko grina ezin kutsakorragoa zen eta gizarte babesa sekulakoa. Emakume guztien egoera berdintzat hartzen zen, klase, etnia edo bestelako aldagaiei apenas erreparatuta, Ipar Amerikako emakume beltzek eta lesbianek haien protestekin hasi arte. Pixkana pixkanaka emakumeen aniztasunaz arduratzen hasi ziren feministak, emakume guztien zapalkuntzaren salaketa eta aniztasunaren aitortpena ehuntzeko jardute zailean.

***Noraino ehuntzen ditugu taldeen arteko antzekotasunak eta ezberdintasunak euskararen arloan?***

Talde eta ideologia ezberdinak bateratzeko ahalmena erakutsi du Euskal Herriko feminismoak eta, noiz edo noiz sutsuak izan ohi ziren eztabaidak gorabehera, unitarioa, herrikoia, igualitarista eta antisistemikoa izateko joera izan duela esan genezake. Izan dira eta badira gure artean mota guztietako jarrera ideologikoak, feminismo liberala barne, baina orokorrean ere, mugimendu erradikaltzat ezagutzen denak izan du lehentasun osoa<sup>7</sup>.

Horrez gain, legeak aldatzeari begirako mugimendua izan da feminismoa eta izaten jarraitzen du, Euskal Herrian ere bai, honek dituen abantaila eta arriskuekin. 70eko hamarkadaren amaieran eta 80koaren lehen erdian, dibortzioaren eta abortuaren aldeko kanpaina jendetsuen denboran gertatu ziren Basauriko hamaika emakumeen kontrako epaiketen protestak bazter guztietara heldu ziren, abortatzeko eskubidearen aldarriak hemengo (eta estatuko) kaleak gainezka egin arte.

***Zerbitzuak ere (Famili Plangintza Zentroak, eredugarrienak baina ez bakarrak) nonahi ezarri ziren. Nago zentro feminista hauek, ikastolekin batera, euskal herritarrek historian izan dituzten zerbitzu publiko berezkoenak izan direla. Hortaz, ez litzateke aberasgarria izango esparru eta mugimendu ezberdinetako prozesu eta ekimen herrikoi guzti hauen balorazio bateratu eta konparatiboa egitea?***

Nolakoak ziren testuinguru honetan nork bere burua feminista bilakatzeko bideak?

<sup>5</sup> Nahiz eta testuan zehar singularreko forma erabili (feminismoa), nazioarte mailan eta gurean, feminismoa oso anitza da, hainbestearino non ikuspegi feministen artean kontraesanak ere sortzen diren.

<sup>6</sup> Feminismoaren historia orokorrak, ikus esate baterako: de Miguel (1995) eta de Miguel. "Los feminismos a través de la historia" (<http://www.nodo50.org/mujeresred/historia-feminismo3.html>).

Euskal Herriko feminismoari dagokionez, 1977, 1984, 1994 eta 2008. urteetan antolatutako Euskal Herriko Jardunaldi Feministen ponentziak kontsulta daitezke. Ikus baita Zabala (2008).

<sup>7</sup> Inguru geografiko ezberdinetako politika feministen arteko aldeetarako, ikus: Gelb (1992).

Kalean etengabeko presentzia izateak ezberdintasunen eta menpekotasunaren agerikotasunak eta ekintzen tamaina eta biribiltasunak erraz-erraz egiten zituzten emakumeen kontzientzia eta parte-hartzea. Eta mota guztietako erreferenteak zabaldu ziren (norbanakoak eta kolektiboak) belaunaldi zahar zein gazteen erabilgarri. Honekin batera, gaitasunen lanketa ere jorratu ohi zen, estilo askotako ikastaroen bidez, autoestimua lantzekoetatik jendaurrean hitz egitekoetara. Baina guztiaren gainetik, auto-kontzientzia taldeen esperientzia eta eraginkortasuna azpimarratu behar dugu, non gogoeta pertsonala eta politikoa bat egiten zen.

Non ote ziren gizonak aro honetan? Hasiera-hasieratik emakumeen aldarrikapenen defentsan protagonismo maila bat izan eta bitartekari eta aliatu gisa jardun bazuten ere, gizonak ez zeuden ez elkarreetan ezta ekintza gehienetan ere, eta agertzen zirenean istiluak lehertzen ziren. Gizonik gabeko mugimendu feministaren garaian gaude, beraz.

Zer esan XXI. mende hasierako mugimenduaz?

Testuinguru soziala eta politikoa errotik joan dela aldatzen, eta aldatzen jarraitzen duela. Hainbat arlotan berdintasun legala faktua bat da baina berdintasun osoaren ilusio optikoak ere jota gaude. Lorpenak lorpen, ezberdintasunen zer nolakotasuna eta adierazpena sotildu egin dira zeharo, eta lorpen objektiboak eta portaera eta mentalitateen desoreka inoiz baino nabariagoa dela esango nuke. Emakumeen prestakuntza formala asko igo da baina kristalezko sabaia eta enplegu ezak hor dira.

Feminismoaren dibertsifikazioa ere gertatu da: elkarreterako feminismoaz gain, arlo akademikoan, profesionalean eta instituzionalean eratu da feminismoa. Administrazio maila guztietan ditugu berdintasunerako erakundeak edo zentroak (erkidegoa, foru-aldundiak, udalak...). Beste aldetik, ikerkuntza feministak badu lekutxoren bat akademian eta horrek sekulako garrantzia du, suposatzen duen aitorzagatik, baina badu ere beregan ezagutza eta politika gehiegi bereiztearen arriskua.

***Zer gertatu al da euskaragintzan? Euskalgintza ere instituzionalizatu eta profesionalizatu da, baina horrek ere ez al ditu kezka berriak sortzen?***

Ezberdintasunen agerikotasuna sofistikatu ahala, erantzunak ere zailago bihurtu dira. Gainera, inoiz baino nabariagoa da emakume guztiak ez gaudela egoera berean, eta aniztasuna eta askotarikotasuna aztertzeke eta kudeatzeko metodoek urriak izaten jarraitzen dute. Elkarreteraren osaketaren argaltzeak eta kaleko presentziaren gainbeherak ere zaildu egiten ditu ekintza kolektiboak. Izan ere, jakin badakigu emakume asko ahaldunduta daudela, baina ez dakigu noraino edo nola neurtu hori, eta zer nolako norbanako edo taldeko ondorioak dakartzan. Gazteei buruzko ikerketak ere ez dira guztiz optimistak. Indarkeriaren alorrari dagokionez, esate baterako, argi dago eraldaketak ez direla hainbeste<sup>8</sup>.

Emakume gazteak oso prestatuta daude baina mutilek baino askoz zailago dute enplegu bat eskuratzeko. Gainera neska gazte askok ez dute haien burua feministatzat; hori baino gehiago, uko egiten diote horrela agertzeari, nahiz eta feminismoaren aldarrien alabak izan. Gazteak ez daude lehen bezala elkarreteran, nahiz eta zenbait espaziotan mantendu: talde abertzaleak eta transgenero (*queer*) deitzen direnak, adibidez.

Unibertsitatean abian jarri diren ikasketak feministek (graduondokoek e.b.)<sup>9</sup> harrera ona dute gazteen artean, eta gazte dezente hasi dira lanean arlo feminista profesionalean. Baina kezka berriak sortu dira, feminismoaren instituzionalizazioak eta profesionalizazioak ez baitakarte besterik gabe jendartearen aldaketa.

<sup>8</sup> Ikus: Rincon (2001), Amurrio et al. (2008) eta Cantera et al. (2009).

<sup>9</sup> Euskal Herriko Unibertsitatean (UPV/EHU) badaude bi graduondoko 60 kreditukoak: ikerkuntza master ofizial bat (Ikasketak Feministak eta Generokoak) eta berdintasun teknikariak prestatzeko titulu propio bat (Emakumeen eta Gizonen Berdintasunaren gaineko Masterra). Nafarroako Unibertsitate Publikoan ere badago 30 kredituko graduondoko bat (Generoan Aditu Titulua).



Bestela, feminista gazteen aldetik badago zaharregandik bereizteko eta proposamen berriak defendatzeko nahi irmoa. Nonbait, esan liteke belaunaldi krisia ere sumatzen dela nahiz eta ekintza orokorretan adin guztietakoek parte hartu batera.

***Belaunaldi krisia ere sumatzen al da euskalgintzan? Euskaldun gazteak jotzen al dute beraien burua euskaltzaletzat? Ba al dabilta gazteak elkarteetan?***

Horrez gain, teorien eta edukien berriztapenak ere ematen ari dira. Haien artean, teoria postmodernoak izango lirakeke ikusgarrienak, "euskalgintzara" askoz astiroago heltzen ari direnak, nire ustez. Honezkero, generoa eta genero ezberdintasunak ikusteko moduak asko konplexutu dira, eta genero nortasunak eta gizon/emakumeen eta heterosexual/homosexualen arteko mugak auzitan jarri dira. Halere, planteamendu postmodernoenak menpekotasunaren aspektu batzuek arduratzen ari dira, ez guztiez, nortasunarekin eta sexualitatearekin zerikusia duten gaiez batez ere. Gizarte ezberdintasunen arloa ez da horrenbeste sakontzen, adibidez, eta moda eta glamour berriak sortzeko arriskua ere antzeman liteke.

Behin baino gehiagotan epaileek salaketa feministak aintzat hartu arren, ezberdintasunak ez dira derrigorrez epaitegietan konpontzen, Irun eta Hondarribiko alardeen inguruan frogatuta gelditu denez. Eta gainera, legeak aldatu daitezke baina jokabideak eta mentalitateak aldatzeak askoz luzeago jotzen du. Hala ere, zenbait arlotan legeen aldaketak ezinbestekoa izaten jarraitzen du, etxeko langileen lan baldintza penagarriei dagokienez, esate baterako.

Feminismoaren kontrako erreakzioak asko sofistikatu dira, esan dut lehenago, eta horien aurreko taktika eta estrategiak ez ditugu beti pentsatuta. Bestalde, emakumeen elkarteak ugalketak ez du beti ideologia feministaren alde egiten, elkarre hauen izaeratik. Profesionaltasunak ere aktibismoaren kontra egiteko arriskua ere hor dago. Eta itxurazko berdintasunak benetako berdintasunaren kontra. Egunotan inoiz baino argiago dago emakumeen jarduera guztiak ez direla feministak. Emakumeek ondo ikasi dituzte eskubideak badituztela, baina aldarrikapenak, parte hartzea eta betebeharrak ez doaz beti eskutik. Eta zail da jakiten nola kudeatu behar den hau guztiau.

Argi dago testuinguru paradoxikoan murgildu garela feministak, arrakasta eta ziurtasun ezaren aroan, jorrabide eta espazio berriak ireki baditugu ere. Esan genezake feminismoak baduela gaur egun bere aurrean erronka nagusi eta zail bat: emakume izendatuak direnek jasaten jarraitzen duten menpekotasunarekin bukatzea baina aldi berean genero ikerkuntzaren muturreko berrikuspenekin jarraitzea (non genero mugak eta ezberdintasunak auzitan jarrita diren). Paradoxek badute sortze indarra beraiengan, zalantza barik, baina oraindik ikusteke dago prozesu honen emaitza zein izango den.

Bitartean zer gertatu da gizonekin? Banaka batzuk badaude lanean propioak (gizonen taldeak) zein mistoak diren elkarre eta ekimenetan, kalean, unibertsitatean zein instituzio feministetan. Eta orokorrean gizonen politikoki zuzenak izaten ikasi dute. Bada zerbaite.

***Euskalgintzan orokorrean antzematen al da antzerako aldaketa teoriko eta politikorik? Espazio guztietan fenomeno berberak edo modu berean eman behar ez badira ere, ba al gaude prestaturik mota honetako gertakariei aurre egiteko? Noraino erabiltzen ari gara, adibidez, erdaldunak konplize gisa? Nolako eragina izan lezakete genero arloan ematen ari diren paradoxa eta berrikuspen guzti hauek (belaunaldien proposamen ezberdinei eta teoria/praxi politikari dagokienez, hain zuzen) kulturagintza osoan?***

## 2. Politika feministen berriztapenak eta jabekuntza kontzeptua

Jabekuntza kontzeptua<sup>10</sup> 60ko hamarkadan erabili zen lehenengoz Ipar Amerikako EE.BBetan eta Latinoamerikan, afroamerikarren eta pobreen eskubideen aldeko borroketan. Baina haren hedapena eta finkapena emakumeen mugimenduen eskutik etorri zen, 70eko hamarkadatik aurrera (Denman, Aranda eta Cornejo, 1999:189)<sup>11</sup>. Euskal Herrira, 2003an Bizkaian sortu ziren lehen Jabekuntza Eskolekin (*Escuelas de empoderamiento*) iritsi zen<sup>12</sup>. Bertako ibilbidea laburra izan arren, mundu mailakoa luzea eta emankorra izan da, gaur egun jabekuntza nozioak bi erreferente nagusi dituelarik: Afrika eta Amerika Latinoko emakumeak (Vazquez, 2009).

Jabekuntza kontzeptu sozio-politikoak kontzientziazioaren ohiko definizioak eta parte-hartze politiko formala aberastu eta gainditu nahi ditu: eskubideen urraketa eta testuinguru politiko eta kultural orokorra ondo ezagutzeaz gain, norbanako eta taldeko eraldaketetan zerikusia duten eta aldaketa bera oztopatzen duten prozesu psikologikoak, politikoak, kognitiboak eta ekonomikoak aintzat hartuz (de León, 1999:191). Ikuspegi honetan, beraz, legeak aldatzeko bideak ikusaraztea eta jorratzea ez litzateke nahikoa izango, menpean daudenen hausnarketa sakona nahitaezkoa baita, erabakiak hartzea eta komunitateekiko loturen beharra bultzatzen dituen prozesu batean (Denman, Aranda eta Cornejo, 1999:192).

Norma Vazquez Hego Euskal Herriko Jabekuntza Eskoletako irakasle eta kolaboratzaileak bi definizio jaso ditu "Las escuelas para el empoderamiento" izeneko testu batean (2009)<sup>13</sup>, Naila Kabeer-ena eta Sarah Mosedale-rena, hain zuzen. Kabeer, Bangladesheko feminista eta ekonomilariak dioenez, jabekuntza, *pertsonen bizi hautaketa estrategikoak egiteko duten gaitasunaren zabalkuntza litzateke, testuinguru batean non alde aurretik gaitasun horiek ukatuak zituzten* (ibidem). Egile honen ustez, beraz, emakumeek hautaketak egiteko ahalmena dimentsio giltzarri izango litzateke. Norbanako eraldaketa horrek egiturak ere aldatuko litzuzke. Antzerako definizioa ematen du Mosedalek: *jabekuntza, emakumeek beraientzat posible dena (desiratu, izan, egin) birdefinitu eta zabaltzen duten prozesua litzateke, egoera batean non murrizketak dituzten, betiere gizonekin alderatuta* (ibidem)<sup>14</sup>.

Teresa del Valle (1999) zuzenduriko *Modelos emergentes en los sistemas y las relaciones de género* liburuan beste definizio hau agertzen da:

*Prozesu bat zeinaren bidez zapalduko pertsonen haien bizitzan gainera kontrola irabazten duten, betiere beste pertsonekin elkar harremanean, eguneroko eta gizarte egituretako jardute eraldatzailetan parte hartuz eta beraiengan eragina duten kontuetan eragiteko ahalmena areagotuz. Baina azpimarratu behar dena da ez dela boterearen jardute bat besteen gainera aplikatu nahi dena baizik eta besteekin batera eta xede zehatzak dituen boterea dela, hau da, ez da menderatzearekin loturik lihoakkeen boterea, boterearen teoria politiko eta soziologikoetan ohikoa izan denaren kontrakoa* (del Valle et al., 1999).

Ikusten dugunez, jabekuntzari dagozkion teoriak ez gaituzte soilik eraman kontzientziazioa zer den edo zer izan litekeen berrikustera, baizik eta boterearen kontzeptu bera ere berraztertzerara. Euskarazko *jabekuntza/jabetze* hitzek ez bezala, gaztelarazko (edo ingelesezko) *em-poderamiento* hitzak lotura zuzena egiten du boterearekin, are gehiago, "besteek duten zerbaite" berreskuratu nahi den irudia ematen du. Baina emakumeen jabekuntzaren teorikoei argi utzi dute boterearen adiera berrititik ulertu

<sup>10</sup> Jabekuntza (jabetzea), ingelesezko *empowerment* eta gaztelarazko *empoderamiento* hitzen itzulpen ez literala da. *Ahalduntze* hitza ere erabili ohi da.

<sup>11</sup> Ikus baita De León (1997).

<sup>12</sup> Gipuzkoan geroago sortu diren eskolek "Jabetze Eskola" izena hartu dute.

<sup>13</sup> Ikus: <http://www.vitoria-gasteiz.org/wb021/http/contenidosEstaticos/adjuntos/es/32871.pdf>

<sup>14</sup> Vazquez-ek dio Paulo Freirek ere erabili zuela termino hau, hezkuntza herrikoien testuinguruan baina pobreez hitz egiteko, ez soilik emakumez (ibidem).

behar dela, Michel Foucault, Antonio Gramsci eta Paulo Freireren ideiak oinarri harturik. Haatik, emakumeek (gizaki orok) erresistitzeko, aldatzeko eta eraldatzeko duten gaitasuna bultzatzen eta ahalbidetzen duen botereaz arituko ginateke.

Euskarazko terminoari dagokionez esan beharra dago oraindik ez dagoela guztiz finkatuta eta zalantzak ere sortzen dituela. Hala ere, gure kasuan gaztelerazkoak edo ingelesezkoak ez duten abantaila bat azpimarratuko nuke: autodeterminazio eskubidearekin eta, ondorioz, euskal jendaratean diren beselako xede politikoekin lotura egiteko aukera ematen digutela, hain zuzen.

Kontzeptu honek izan ditzakeen arriskuen artean, feminismoarentzat hitz fetitxe bihurtu eta gehiegi erabiltzearena nabarmenduko nituzke, feminismoak gaur egun politika eta norbanako prozesuen mailan dituen zalantza edo dilema guzti-guztien konpongarri bailitzan. Sarri askotan, gainera, eskubideen aldarrikapen soilarekin nahasten da edota ez da beti ondo adierazten zertaz ari garen emakumeen (edo beste kolektibo baten) jabekuntzaz hitz egiten ari garenean.

Jabekuntza kontzeptuaren alde baikorren artean, nozio honek norbanako prozesu eta prozesu politikoei dagokien gogoeta aberastu egin duela azpimarratuko nuke eta bide eta estrategia berriak jorrazteko balio izaten ari dela. Inoiz baino argiago dago orain instituzioak eta egiturak aldatzea ezinbestekoa dela baina baita jokabideak, jarrerak eta subjektibitateak. Biak ala biak batera doazela, maila bereizgarriak badira ere.

Subjektibitateak eta jarduerak aldatu ahal izateko nahitaezkoa da prozesu horiek jendearengan nola ematen diren aztertzea, eta egituren eta praxien arteko loturak egitea. Zenbait egilek azpimarratu dutenez, emakumeen jabekuntza prozesuak behar bezala neurtu ahal izateko ohikoak diren erakusle eta indize estatistikoak baino tresna sakonagoak behar dira (De Leon, 1999:195). Hau da, ohiko ikerkuntzaren bidez, prozesuen maila batetara iristen ari gara baina ez sakontasun osora. Horretarako ikuspegi eta metodologia egokituagoak beharko genituzke. Eta honek eramaten gaitu geroago ikusiko dugun beste kontzeptu batez hitz egitera, *agentziaz*, norbanako edo talde ekintzaz, hain zuzen.

***Zer nolako ikuspegiak eta metodologiak erabiltzen ari gara euskararen arloan? Ba al dira ego-kiak gure metodologia eta norabide teorikoak euskalduntze eta euskaltzaletze ibilbideak bere sakontasunean eta konplexutasunean ikusarazteko eta ulertzeko?***

Gatozen orain Euskal Herriko Jabekuntza Eskolez zerbait esatera. 2003. urtean, Basauri, Getxo eta Ermuko udal berdintasun arloetan lanean zeuden teknikari feministek erabaki zuten ordura arte planteaturiko egitasmoak ez zirela nahikoak eta Jabekuntza Eskola bana sortarazi zuten herri horietan. Hiru izan ziren helburu nagusiak: emakumeen eskubideen inguruko kontzientzia indartzea; emakumeek kolektibo baten parte sentiaraztea eta kolektibo horren beharrak hautemateko gai izatea; eta espazio horretara emakume solteak zein elkarteak (egonkorrak edo berriak) erakartzea (Vazquez, 2009).

Baina kontuan hartu behar da oraingo feminismoaren egoeraz lehenago esan duguna: mendearen aldaketarekin batera feminismoaren jarraipena eta dibertsifikazioa berretsi dela; eta elkarte feministetan bajak eman badira ere eta kalean duen oihartzuna hogeitau urte lehenagokoa ez bada ere, erreferentzia giltzarri izaten jarraitzen duela, ekimen eta proposamen berriak eginez. Horrez gain, azken urteetan nabarmen hazi da jarduera feminista instituzionala, akademikoa eta profesionala, eta ausartuko nintzateke esatera ekimen interesgarrienak lau eremu hauek (elkarteetan parte-hartzea, politika instituzionalak, ikerkuntza eta profesionalizazioa) uztartzen direneko guneetan ematen ari direla. Eta hain justu, azken hau izango litzateke eskola hauen beste ezaugarri bat, nire ustez, mota eta inguru guztietako feministak batera lanean baitaude bertan.

Egun baditugu hainbat eskola Bizkaian eta Gipuzkoan<sup>15</sup>, eta haien arteko zenbaitzuk sare batean daude elkarturik eta, nahiz eta elkarrengandik autonomoak izan, urteko programazioa batera egin ohi dute. Gainera, urtean behin edo bitan Euskal Herri mailako jardunaldiak ere antolatu ohi dituzte.

Jabekuntza eskolek, ezer baino gehiago, formakuntzarako, hausnarketarako, kontzientziaziorako eta topaketarako gune izan nahi dute. Lan-ildoak eta gaiak oso anitzak eta zabalak izan ohi dira eta herriz herri eta urtez urte programazioa aberastuz doa, betiere herri bakoitzaren emakumeen ezaugarriari eta eskaerari egokituz. Mota askotako tailerrak, mintegiak, topaketak eta ekimenak eskaintzen dira hainbat lerrotan: feminismoa eta berdintasuna, nortasun eta subjektibitate femeninoa, beste kulturetako emakumeekin elkartasuna, literatura, artea, osasuna, zaintza-lanak, sexualitatea, ekonomia, indarkeria... Eta oso noizean behin bada ere, antolaketa eta ekimen egonkorrak ere sortu ohi dira<sup>16</sup>.

Bederatzi urte igaro dira jabekuntza kontzeptua gure artean zabaldu zenetik eta esan beharra dago feminismoarentzat onuragarria, produktiboa eta oparoa izan dela, eta lehenago egindako lana berri-kusteko aukera ere eman digula, egin dena eta egiten ari dena kontestualizatzeko, nahiz eta oraindik ebaluazio orokorren faltan egon.

***Euskararen arloan ez al diogu gehiago erreparatzen eskubideen urraketari edo gaitasun linguistikoari, ahalezko jabekuntzari baino? Jabekuntza kontzeptua/filosofia zabal hau baliagarria ere izan liteke euskararen arloko formakuntza, hausnarketa, kontzientziazio eta topaketarako guneak sorrarazteko? Nola lagundu lezake esperientzia feministak horretan?***

Eskola hauen dinamika berdintasun atalen jarduera eta egitasmo orokorren barruan kokatu behar da. Beraz, udal horietan dagoen berdintasunerako ekintzak askoz zabalagoak dira, eskola bera gaindituz<sup>17</sup>. Azkenik, azpimarratu nahi nuke lehenago esandako zerbait. Programazio eta jarduera interesgarriak, duda barik, teknikari feministak (prestakuntza akademikoaz gain eskarmentu politikoa dutenak) dauden lekuetan sortzen ari direla, eta dauden herrietako talde feministekin zein feminista solteekin harreman estuak mantentzen saiatzen direla. Arrakastaren beste osagaia, nire ustez.

***Ba al dakigu orokorrean zeintzuk diren kultur ekimenen arrakastarako faktoreak?<sup>18</sup>. Ba al ditugu euskararen arloan jendearen ahalmentzea neurtzeko egokiak diren erakusle edo tresna metodologikoak?***

---

<sup>15</sup> Baditugu jabekuntza eskolak herri hauetan: Abadino, Arrasate, Basauri, Berriz, Durango, Eibar, Elorrio, Ermua, Getxo, Hernani, Legazpi, Tolosa, Zarautz...

<sup>16</sup> Esate baterako, Basaurin, Jabekuntza Eskolatik sortu zen 2006. urtean *Hemengo eta Hango Emakumeak-Mujeres de Aquí y de Allá*, munduko emakumeekiko elkartasunaren arloan jarduten duen elkarte.

<sup>17</sup> Basauriko Berdintasun Arloarekin jarraituz, Jabekuntza Eskolaz gain baditu bi parte-hartze gune nagusi: Berdintasun Kontseilua (emakumeen elkarte ordezkariek, berdintasun teknikaria eta zinegotzia) eta Foro intersindikala (sindikatu ordezkariekin, gizezkoak oro har). Eta zenbait zerbitzu: Emakumeen Informazio Zentroa (lan-aholkularitza eta aholkularitza juridikoa) eta Sexu Informazio Bulegoa (gazteei zuzenduta gehienbat baina eskoletako sexu-heziketako programez ere arduratzen dena). Horrez gain, hainbat programa eta jarduera orokorrak edo zehatzak daude edo egon dira indarrean (emakumeen kontrako indarkeria, *Jabetu* aldizkaria, emakumeentzako debekaturiko mapa, kirola, kontziliazioa...). Ikus: <http://berdintasuna.basauri.net/>

<sup>18</sup> Amaia Zinkunegi Debako Udaleko euskara teknikariak, Mondragon Unibertsitateko Euskal Kulturgintzaren Transmisioa Aditu Titulu barruan egin berri duen herri horretako kultur taldeen diagnostiko batean ikusi du kultur transmisioa bermatuago dagoela eskola (adibidez musika eskola) eta taldeen arteko harremana dagoenean. Zinkunegik aurkitu duen arrakastarako beste faktore bat ekimen ezberdinetako parte hartzaileen adinari dagokio. Zenbat eta adinartekotasuna txikiagoa izan, hobe.

Baina goazen pixka bat aurrerago. Jabekuntza kontzeptuaren inguruan egin dugun hausnarketa aberastu egiten da, nire ustez, agentzia (norbanako ekintza eta taldekoa) kontzeptuarekin erlazionatuz gero, hurrengo atalean ikusiko dugunez.

### 3. Agente/biktima bereizketa eta prozesuen azterketa

---

Bai feminismoan baita gainerako gizarte mugimenduetan ere joera izan dugu biktimaren alderdiari bakarrik erreparatzen talde menpeko baten egoeraz gogoeta egiten dugunean. Esate baterako, emakumeak orokorrean biktimatzen hartuak izan ohi dira. Ikuspegi honek arazo ezberdinak ditu baina garrantzitsuena eta arriskugarriena hauxe litzateke: biktima gisa ikusiak diren pertsonen babes falta eta laguntza beharra azpimarratzen dugun bitartean, pertsona horiek egoera horretatik ateratzeko duten gaitasuna edo jarduna ikusiez in bilakatzen dugu. Muturrera joanez, behin baino gehiagotan, ukatu ere egiten diegu ahalmen hori, ulertuta ekintza edota laguntza kanpotik (instituzioetatik, beste kolektibo batengandik...) etorri behar zaiela halaberrez.

#### ***Ez al da gauza bera gertatzen euskararen arloan?***

Biktimismoan jausteko joera honek badu lotura zuzena boterea ikusteko izan ohi dugun planteamendu nagusiarekin, non boterea oso era dikotomikoan eta bertikalean ulertzen dugun: boterea dutenak (goikoak) eta botererik ez dutenak (behekoak). Baina honen aurrean baditugu Foucaultek (1986) eginiko proposamenak, besteak beste, zeinarentzat boterea ez den edukitzen den zerbait baizik eta jendearen artean era horizontalean, zirkularrean, pasaratzen den zerbait. Beraz, gu guztiok botere posizioak genituzke, txikiagoak edo handiagoak, eta gure botere maila aldakorra ere bada. Gramsciren bere Espeixearen Koadernoetan (1986) idatzitako Hegemonia/Subalternitate teoria ere oso lagungarria izan daiteke honetan, bi alderdi horien elkar harreman estuak aztertzen baititu. Haatik, subalternoei balukete beti zer egin beraiek baino botere gehiago dutenen aurrean, eta jendartearen eraldaketak batzuen eta besteen arteko dinamikeetatik sortuko lirateke.

Dolores Juliano antropologo feministak dioenez, mendetasun edo gutxiengo egoeran dagoen edozein pertsona edo kolektibo saiatu egingo da, saiaturen da, nola edo hala, ezkorra zaion egoera horri aurre egiten, egoera horrek eragiten dizkion alde txarrak, gutxienez, neutralizatzen. Adibide ezberdinak aztertuta egile honek, hala nola, Chiapas-eko (Mexiko) iraultza zapatistan edo Saharan emakumeek izan duten papera, edota emakume prostituta eta pobreei bizirauteko indarrean jarri ohi dituzten estrategiak<sup>19</sup>.

Boterearen nozioaren arloan eman diren berrikuspenez gain, baditugu ere praktikaren gizarte teoria deitzen dena, non egituren azterketari garrantzia kendu barik jendearen jardunari eta, bereziki, egituren eta jardunen harremanari jarri ohi zaion arreta osoa<sup>20</sup>.

Mota honetako ikuspegi teorikoei jarraiki eta munduko zonalde askotako emakumeek duten eskarmentua aintzat harturik, agentziari<sup>21</sup> erreparatzen jarriak gara feministak eta horrek ikerkuntzan zein gizarte esku-hartzeetan ere aldaketak egitera behartzen gaitu. Haatik, agentzia/ekintza dimentsio alderdi hori gauden edozein arlotan legoke, eta ikusten ez badugu ez da ez dagoelako baizik eta ez dakigulako ondo antzematen. Gure planteamendu teoriko eta metodologikoen arazoa litzateke, hortaz, ez errealitatearena.

Hori baino gehiago, jardute eta esperientzia horiek aintzat hartzen eta nolakoak diren ikertzen ulertu dezakegu bakar bakarrik jendeak zer egiten duen, zer nolako taktika eta estrategiak burutzen dituen.

---

<sup>19</sup> Ikus, esate baterako, Juliano (1992).

<sup>20</sup> Ikus, esate baterako, Ortner (2006).

<sup>21</sup> Agentzia hitza ingelesezko *agency* hitzaren itzulpena da. Kontzeptu honek norbanako ekintzez eta talde ekintzez hitz egiteko erabiltzen ari da gizarte zientzietan, gizarte egituren eta ekintzen artean harreman dialektikoak daudela iritzita. Hortaz, agentzia ekintzarako ahalmena litzateke zentzu zabalean nahiz eta botere harremanen baitan sortu eta berauek eraginda izan. Ikus, esate baterako, Ortner (2006) eta Mahmood (2008).



Ilido horretako teoriak eta metodologiak asmatzea eta aplikatzea ezinbestekoak lirateke emaitza teoriko edo politiko berriak lortze aldera. Ikerkuntza (edo hausnarketa) enpiriko honen emaitzak, anitzak eta askotarikoak izango dira derrigor, beraz, ez ditugu sinplifikatu behar, nahiz eta aniztasun honek politiken diseinua errotik korapilatu.

Planteamendu berri hauetan badago beste zerbaitekin. Jardunetan jarritako interesaz gain, prozesu osoei begiratzen ere ikasten ari gara, ez une zehatz batean gertatzen denari baizik eta denbora tarte batean suertatzen den orori, prozesu horietan dauden kontraesanak, gorabeherak eta eraldaketak aintzat hartuz. Era berean, agindu sozial eta kultural murriztaileen menpe bizi diren gizakiek egiten dutena ondo ulertzeko bestelako bereizketak ere auzitan jarri beharko genituzke: kontziente/inkontziente ardatza, adibidez, eraldaketak ez baitira diseinaturiko politiken ondorio hutsa, ingurune bateko faktore askoren emaitza baizik.

Guzti honek gizarte ekintzen gorputzaren alderdia eta alderdi emozionala kontuan hartuz eramateko gaitu, hurrengo atalean laburtuko duguna.

## 4. Gorpuztasunaren ikerkuntza eta politika

---

Emakume, gizon edo garena garela izatea, feminista izatea, euskalduna izatea... neurri handi batean behintzat, gorputz zehatz bat izatea baino ez litzateke. Gorputz askotarikoa, anitza, hori bai, ezaugarri eta dimentsio ezberdinekin: materialtasuna, itxura, estetika, keinukera, mugimendua, sentsorialitatea, emozioa, ezagutza, intuizioa, kognizioa...<sup>22</sup>. Testuinguru zehatz batean eratuz joaten den haragitasuna, etengabe aldaketan dagoena. Ikuspegi honetatik, jendartearen gorputzean gorputzeko izango litzateke, ez besterik, eta gizarteratzea, gorputz lanketa<sup>23</sup> prozesu bat, non gaitasun eta ahalmen zehatz batzuk jorratuz joango ginatekeen, betiere besteekiko elkar harremanean.

Nolakoa litzateke, esate baterako, emakume izendatuok "emakume" gisa garatzeko izan ohi dugun gorputz lanketa? Ezberdintasunak ezberdintasun, emozionalitate mota bat (harreman pertsonalekin oso lotua dagoena) lehenetsi ohi zaigu txikitatik emakumeoi, besteei begira jartzen gaituena; eta horrek gorputza eta zentzumena norabide batean garatzeko eta erabiltzeko joera dakar berarekin, nahitaez. Era berean, beste adibide bat ematearren, emakumeok itxurari gainerreparatzeko heziak izan ohi gara eta horrek gorputzaz dugun irudia eta erabilpena baldintzatzen ditu. Hau horrela, emakumeen artean anitza baina ezaugarri komunak dituen gorpuzkera horretatik begiratzen diogu bizitzari eta gorpuzkera horrek eragiten du gure jarrera soziala eta morala.

Nolakoa litzateke feminista izateko egiten dugun gorputz lanketa? Gorputzaren eratze eta berreratze bat baita, kontzientea edo ez hainbeste, non askatasuna eta ekintzarako eskubidea pasibotasunaren aurrean jarriko dugun, presentzia ezkutatzearen aurrean, plazera arriskuaren aurrean, sendotasuna ahuleziaren aurrean, besteak beste... eta hori dena norbanako jardute eta jardute kolektiboaren bidez.

Bide beretik, esan genezake jabekuntza bera gorputzean, arlo fisiko eta sentsorialean, gertatzen den prozesua litzatekeela: gorputz gaitasun eta ahalmen batzuei lehentasuna emanaz eta beste batzuk baztertuz.

***Nolakoa litzateke euskaldunok euskaradun gisa jabetzeko dugun gorputz lanketa anitza? Ba al dugu zerbait pentsatuta maila honetan?***

***Adibide bat jar dezagun: Korrikarena, hain zuzen. Korrikan parte hartzea, ariketa politikoa izateaz gain, ariketa fisikoa da, emozioz jantzita dagoen jarduera fisikoa. Alderdi guztiak, fisikoa, emozionala eta politikoa batera doaz<sup>24</sup>.***

***Izan ere, euskaldunon ekintza sozial eta politikoak oso fisikoak izan ohi dira (manifestazioak, elkarretaratzeak, ibilaldiak...). Etengabe mugitzen, ibili dabilen jendartearen gara. Gogoeta egin al dugu horretaz? Nahita edo nahi gabe, kontziente edo inkontziente, nola gaude lantzen edo***

---

<sup>22</sup> "Gorputza" esaten dudanean, ez da medikuntzak definitzen duen gorputz biologikoa baizik eta gizarite zientzietan azken hamarkadetan definituz joan dena: agente den gorputza, subjektu bihurtu dugun gorputza.

<sup>23</sup> Kontzeptu hau Loïc Wacquant-ena da, boxeolariarekin egindako ikerketan erabilia (ikus Wacquant, 1995). Gorputz lanketa organismoaren manipulazio intentsiboa litzateke, pertsonarengan jarrerak, mugimendu errutinak eta emozio eta kognizio egoera subjektibo zehatzak eragiten dituenak, zeintzuen bidez gorputz eremu osoa berrantolatzen den, organu eta gaitasun batzuk beste batzuen aurrean gailenduz eta gorputzaren zentzuaz gain organismo osoaren kontzientzia eraldatuz, eta horrekin batera, munduarena. Nik neuk erabili dut kontzeptu hau pasarella modeluen lanbidez egindako azterketan (Esteban, 2004) eta baita maitasuna gizarteratzeari dagokionean (Esteban, 2011a).

<sup>24</sup> Ikus honen inguruan Teresa del Valle, *Korrika. Rituales de la lengua en el espacio* (1988) liburua dioena.

***osatzen gure gorputz jabekuntza hori? Zer ondorio atera litezke euskal gorputz politikoen analisi batetik?<sup>25</sup> Zer nolakoak dira edo izan litezke euskal gorputz politikoak?***

Esan dudan moduan, gorputzaren gizarte teoria honetatik, jabekuntza (feminista edo euskaltzalea), gorputz jabekuntza baino ez litzateke. Eta horrela ikustea, nire ustez, bide zabal eta oparoa zabaltzen digu hausnarketari edo esku hartzeari begira.

---

<sup>25</sup> “Gorputz politikoa” esaten dudanean, haragiztaturiko irudikapen, irudi, ideia, jarrera, teknika eta portaera multzo batez ari naiz, gorputz eraketa zehatz bat, gizarte mugimendu batek (feminismoan e.b.) kontzienteki edo inkontzienteki bultzatua, norbanako edo taldeko mailan gauzatzen dena. Gorputz politiko batek beregain daramatza pertsona, generoa eta gizarte harremanak ulertzeko, eta mundua ezagutzeko, begiratzeko eta elkarrekiteko modu zehatzak, errealitateari eusteko, erantzuteko eta eraldatzeko moduak (edo saioak). Ikus Esteban (2011a).

## 5. Amaitzeko

Eraldaketa testuinguruan eta testuinguru paradoxikoan bizi garela azpimarratu dut behin eta berriz eta baita genero ezberdintasunak mantendu baina sotildu ere egin direla (**euskara arlokoan ere bai?**), eta ez gaudela nahiko prestatuta maila horretan gogoetari ekiteko.

**Azken urteetan sortu diren nozio, teoria eta jarduera berri hauen inguruan esandakoa laburbiltzeko zenbait ideia azpimarratuko nituzke feminismorako zein euskara arlorako baliagarriak izan daitezkeelakoan:**

- **Praktikei, jarduteei begiratu behar diegu, ideiei eta diskurtsoei bezainbeste: praxi soziala, gorputz praxi gisa ulerturik.**
- **Boterea, menpekotasuna edo jabekuntza... prozesu gisa ulertu behar ditugu, gora-behera, kontraesan, dilemez josita. Ibilbide osoari begiratzea onuragarria izan liteke oso gure gogoetetan eta ekimen politiko-kulturaletan.**
- **Baina prozesu hauek askotarikoak dira ezinbestean, anitzak, konplexuak: ez dira berdinak edozein testuingurutan, edozein adinetan, edozein espaziotan. Hau kontuan hartu behar dugu ikerkuntzan eta politikan. Teoria eta hausnarketa orokorrak, agian, gerorako utziz.**
- **Agentziari begiratu behar zaio biktimismoari baino: jendeak baldintzarik gogorretan ere zer egiten duenari. Eta hortik ikasi.**
- **Jabekuntza gorputz lanketa, ariketa fisikoa baino ez bada, politika (gorputz) praxia, zer egin liteke bada arlo honetan orain arte egin ez duguna.**

**Azken galdera: genero berdintasunaren zein euskararen aldeko politikez ari garenean, erakunde batetik lan egiterakoan, erakunde horretako pertsonak ere (langileak, arduradun politikoak...) gure ekimenen helburu izan daitezke. Zein zentzutan? (eskubideak, legea, praktika pertsonala, jabekuntza ekimenak...). Eta erakunde horren hizkuntza politika sustatu nahi dugunean?**

**Ezin ukatu bai feminismoan baita euskararen arloan ere badugula gaur egun arrakasta eta botere maila bat, txikiagoa edo handiagoa arlo eta testuinguruaren arabera. Honek erronka berriak planteatzen dizkigu egunero. Nago gizarte eremu edo mugimendu ezberdinen arteko elkarlana erabat produktiboa izan daitekeela egoera honi aurre egiteko.**

## 6. Bibliografía

Amurrio, Mila; Larrinaga, Ane; Usategi, Elisa; Del Valle, Ana I. (2008) *Violencia de género en las relaciones de pareja de adolescentes y jóvenes de Bilbao*. Bilbao: UPV/EHU.

Cantera, Itziar; Estébanez, Ianire; Vázquez, Norma (2009) *Violencia contra las mujeres jóvenes: la violencia psicológica en las relaciones de noviazgo*. Bilbao.

De León, Magdalena (bil.) (1997) *Poder y empoderamiento de las mujeres*. Bogotá: Tercer Mundo Editores / Universidad Nacional de Colombia.

Denman, Catalina; Aranda, Patricia; Cornejo, Elsa (1999) Magdalena de León (bil.) *Poder y empoderamiento de las mujeres*. Bogotá: Tercer Mundo Editores / Universidad Nacional de Colombia". Re-seña. *Región y Sociedad*, 11(18):189-197.

De Miguel, Ana (1995) Feminismos. In: Amorós, C. (zuz.) *10 palabras clave sobre mujer*. Lizarra: Verbo Divino, 217-255. orr.

De Miguel, Ana. *Los feminismos a través de la historia*.  
Ikus: <http://www.nodo50.org/mujeresred/historia-feminismo3.html>

Del Valle, Teresa (1998) *Korrika. Rituales de la lengua en el espacio*. Bartzelona: Anthropos.

Del Valle, Teresa et al. (1985) *Mujer vasca. Imagen y realidad*. Bartzelona: Anthropos.

Del Valle, T. (koord.); Apaolaza, J.M.; Arbe, F.; Cucó, J.; Díez, C.; Esteban, M.L.; Etxeberria, F.; Maquieira, V. (1999) *Modelos emergentes en los sistemas y relaciones de género*. Memoria final de investigación.

Esteban, Mari Luz (2004) *Antropología del cuerpo. Género, itinerarios corporales, identidad y cambio*. Bartzelona: Edicions Bellaterra.

Esteban, Mari Luz (2011) Cuerpos y políticas feministas. El feminismo como cuerpo. In: Villalba Augusto, C.; Álvarez Lucena, N. (koord.) *Cuerpos Políticos y Agencia. Reflexiones Feministas sobre Cuerpo, Trabajo y Colonialidad*. Granada: Universidad de Granada. Colección Periferias, 12. Zka, 45-84. orr.

Esteban, Mari Luz (2011) *Crítica del pensamiento amoroso*. Bartzelona: Edicions Bellaterra.

Foucault, Michel (1993) *Microfísica del poder*. Madril: La Piqueta.

Gelb, Joyce (1992) Feminismo y acción política. In: Dalton, R.J.; M. Kuechler (eds) *Los nuevos movimientos sociales: un reto al orden político*. Valencia: Edicions Alfons el Magnànim-Institució Valenciana d'Estudis i Investigació-Generalitat Valenciana, 193-217. orr.

Gramsci, Antonio (1986) *Cuadernos de la cárcel*. Mexiko: Ediciones Era.

Juliano, Dolores (1992) *El juego de las astucias*. Madril: Horas y HORAS.

Mahmood, Saba (2008) Teoría feminista y el agente social dócil: algunas reflexiones sobre el renacimiento islámico en Egipto. In: Suárez Navaz, Liliana; Hernández Castillo, Rosana Aída (eds.) *Descolonizando el feminismo. Teorías y prácticas desde los Márgenes*. Valentzia: Cátedra.

Ortner, Sherry B. (2006) *Anthropology and Social Theory. Culture Power and the Acting Subject*. Duke: Duke University Press.

Rincón, Ana (2001) *Portaera maskulinoen eta femeninoen ereduak eta erreferenteak euskal gazterian*. Gasteiz: Emakunde.

Vazquez, Norma. "Las escuelas para el empoderamiento". Ikus:  
<http://www.vitoria-gasteiz.org/wb021/http/contenidosEstaticos/adjuntos/es/32871.pdf>

Zabala, Begoña (2008) *Movimiento de mujeres. Mujeres en movimiento*. Tafalla: Txalaparta.



## **0. HAUSNARKETAREN ESPARRUA**

Hasi baino lehen lan honen esparrua zehaztea beharrezkoa izango zaigu holako analisi zabalegi eta orokorregi batean ez erortzeko. Gai zabala eta bide anitz eta, uste ala ez, korapilatsuekin, nire ustez zenbait militantzia gunetan eztabaida sakon baten faltan dagoena. Eztabaida horretan nere ekarpen txikia egitera nator.

Esan bezala esparrua mugatzeko beharrea ikusten dut nire burua, batez ere kronologikoki, Euskal herriko militantziaren historiaren laberintoan galdu baino lehen. Hala ere nahiz eta ponentzia honetan azkenengo bi hamarkadetako militantzia ereduaren hausnarketan sakondu, aurreko hamarkadetako errealitate eta eraginek ere present egon beharko dute derrigor, ezin baitugu oraina iragana barik ulertu.

Kokapen geografikoa, argi dago, euskal Herrira mugatuko da. Gure herriaren eredia, Europa eta mundu mailan bitxia da, herri txiki honek elkartzeko duen ohitura sustraituak, sortu baititu aro garaikideko militantzia eta elkarlan eredu oso interesgarriak. Zenbait kasutan abangoardia izatea lortu dugu, beste batzutan aldiz, eta hemen umorea eta sormenaren presentziak ari naiz, ez daukat nik hain argi punta-puntan egon ala beste toki eta korronteen eraginez mugitzen hasi garen. Haatik, Euskal herriak bere historia garaikidean eredu eta adibide andana eman ditu hausnarketa honetarako oso aztergai interesgarriak izango direnak, horregatik ez dut urrunera jo beharrik izango.

Eta esparrua zehazten bukatzeko militantzia ereduari begiratuko diet, printzipioz ez ditut militantzia politikoak, kulturalak, sozialak edo ekonomikoak ezberdinduko, bakoitzak bere lan esparrua dauka, bere lotura zuzenak, bere eragin eta korrante ezberdinak baina pertsonalki uste dut denak direla politikoak eta denek egiten diotela herrigintzari ekarpen. Nere hausnarketan esparruari baino lan dinamikei begiratuko diet, haien artean kontrajarriz, umoreari eta sormenari emandako garrantzia bilatuz, hau baita lan honen helburua, umorea eta sormenaren garrantziak ohartu, izan diren ereduak azpimarratu, baita zenbait gabezi ere eta herrigintzari egiten dion ekarpena ikustarazi.

## **1. MILITANTZIA EREDU EZBERDINAK**

Militantzia esparruak ezberdinduko ez ditudala eta guztiak politikoak direla aipatzen dudanean ez dut esan nahi militantzia guztiak berdinak direnik, ezta gutxiagorik ere!! Ez da berdin ONG bateko edo erakunde armatu bateko militantzia, bi mutur aipatzearen, baina sormenaren eta umorearen garrantziak ohartzeko militantzia eredu ezberdinen ibilbideaz baliatuko naiz. Esparru bakoitzean sormenak ez du zentzu berdina izango ezta umoreak zeregin berdina, militantzia esparru bakoitzak bere dinamika propioen harira jakin behar izan duelako, edo ez, bi faktore hauek praktikan jartzen.

Beraz, nahiz eta zenbait ataletan militantzia ereduak banatu eta esparruka aztertu, berriro azpimarratu nahi dut guztiak politikoak direla eta euskal herrigintzari ekarpena egiten diotela, batzuetan, nere iritziz, uste baino interesgarriagoa.

## **2. UMOREA ETA SORMENA**

Orain arte batera erabili ditugun bi kontzeptu hauek, hemendik aurrera banatzen hasiko gara, nahiz eta komunean ezaugarriak izan eta batzuetan bat egin ez dute zertan beti elkarrekin joan beharrik. Horregatik kontzeptuak argitzen eta definitzen saiatuko gara hausnarketa honen lan ildo mugatzeko eta zertaz ari garen ongi ulertzeko.

Umoreaz ari garenean, gizakiek gure errealitatea ikusi, ulertu eta partekatzeko dugun gaitasun batetaz ari gara, besteengan eragin zehatz bat bilatzen duena. Hona hemen ba umorearen lehenengo dimentsioa, soziala. Umoreak besteen onarpena behar du umorea izateko, beraz zeozer kolektiboa izan behar duenez beti bilatu beharko du jendartea bere mezua zabaltzeko.

Gero mezu hori oso bestelakoa izan daiteke, umore mota asko existitzen baitira, guk umore matxista, arrazista eta homofobia hasieratik baztertuko ditugu, ez ditugulako jarrera horiek onartzen baina umorearen erabilera baten isla dira, eraso, aurrerago hitz egingo dugu honetaz. Hala ere gure buruaz barre egin behar badugu umore fina edo argia erabiltzea nahiago dugu. Eta hemen sartzen da gure errealitatea nola ulertzen dugun. Umoreak zorrotzasunak apurtzen lagunduko digu, alde positiboak indartzen eta negatiboak edo gustatzen ez zaizkigunak ahultzen, azken



finean modu baikor baten bidez gauzak onartzen. Ez naiz konformismoaz ari, ez . Gure burutik hasita, gure taldeen egoera edo dinamikak eta mundu mailako egoeretaraino eraman daiteke begiratzeko moduz ari naiz, begirada umoretsuaz alegia.

Helburuetaz hitz egin dugu, umoreak helburu ezberdinak izan ditzake, norbait edo norbaiten jarrerari aurre egin, arazo edo problematika zehatz batez ohartu, norbaiti edo zoezerri eraso egin, zenbait gertaeraren beste bertsioa eman, giza jarrerak aztertu etab. Ados egon gaitzke edo ez, interesgarriak irudituko zaizkigu momentu jakin batean edo ez baina helburu horiek lortzeko mekanismo berdinak erabiltzen ditu, enpatia, identifikazioa eta imitazioa. Beraz, hona hemen beste dimentsio interesgarri bat, umoreak bestearen sentimendu eta pentsamoldeekin konektatzen jakin behar du, besteengan identifikazioa sortzen jakin behar du eta guzti hori modu argi eta ulergarri batean azaltzen.

Akaso arraroa irudituko zaizue militantziarekin lotzea baina umorearen beste dimentsio garrantzitsu bat sendatzearena da. Erabat onartuta dago osasun munduan barrearen indar osatzailea, barre egiten dugunean gure gorputzak askatzen dituen hormona onuragarri askoren balioaz ari dira jabetzen ikerketa ezberdinen bidez. Gure gorputzean eta gure egoera emozionalean eragiten dituen aldaketak nabariak dira, barreak ez ditu gaixotasunak sendatzen baina stress-a, depresioa, bakardade sentimendua, urduritasunaren kontra oso eraginkorra izan daiteke.

Guzti hau ematen denean umorea helburu ezberdinak lortzeko komunikazio tresna oso interesgarria bilakatzen da. Horregatik azpimarratu nahiko nuke umorearen dimentsio eraldatzailea. Errealitatearen, berdin nire buruaz, nire taldeaz edo euskal herriko problematika batez ari bagara, diagnosis ulertzen eta onartzen lagunduko digulako eta hortik hasita borondatea baldin badago errealitate hori eraldatzen.

Umorea aztertzen gera gaitzke baina ez da hau helburua eta uste dut ideia interesgarri nahikoak agertu direla, batez ere militantziarekin lotu nahi ditugunak. Hasteko biek dute jendartearen beharra, biek zabaldu behar dute mezua, beraz interesgarria izan daiteke militantzia eredu ezberdinentzat hausnartzea umoreak erabiltzen dituen mekanismoak, azken finean, komunikazioa hobetzen, eta ez naiz euskarri teknologikoetaz ari, lagungarri izan daiteke. Bestetik ere barne dinamiketan ere erabilgarri izan daiteke umorea, taldeen egoerak hausnartu eta eztabaidatzerakoan, dinamikien baliogarritasun edo gabeziei aurre egiterakoan, gure buruarekin franko izateko garaian jarrera pertsonal eta kolektibo moduan erabilia.

Militantziaren egunerokotasunean ere momentu latzak egon daitezke, eta egon badaude, hauetan ere umore dosi egokia lagungarria izan daiteke, erlaxatzeko, tentsioak askatzeko, jarrera kontrajarriak hurbiltzeko... Bukatzeko azpimarratu berriro umorearen dimentsio eraldatzailea, militantzia eredu askoren helburua errealitatea, inguru eraldatzea da haienezko batez ere umorea tresna eraginkorra izango da, iraultza handia zein txikia, behin-betikoa edo egunerokoa ez da horren gauza serioa izan behar, arduratsua bai noski, baina ez jarrera eta aurpegi zakar batekin, guztiz stressaturik aurrera eraman beharrekoa, baizik eta aurpegian benetako irribarrea daramagularik.



### 3. SORMENA

Sormenari dagokionez, definizio borobil bat bilatzea ez da erraza, definizio ugari garatu dira sormenaren inguruan baina, niri, hurrengo hau oso egokia iruditu zait azaldu nahi dudana ulertzen laguntzeko. Sormena erronken aurrean irtenbide berriak bilatzeko gaitasuna da. Erronkak modu edo esparru ugari eta ezberdinekoak izan daitezke, beraz sormena bizitzako esparru guztietara aplikatu daiteke, ez soilik esparru artistikora, batzuetan gaizki-ulertzen den moduan, hona hemen sormenaren ezaugarri garrantzitsu bat, eta hona hemen beste bat, umorearekin gertatzen ez den bezala sormena ez da soilik giza gaitasuna, beste izaki bizidunek, animali, landare, zein bakterio eta mikroorganismoek sormena erabiltzen dute bere egunerokotasunaren erronketan eta beren eboluzio eta garapenaren bidean ere sormenaren papera ezinbestekoa izan da. Unibertsoaren eboluzioan ere sormenak paper garrantzitsua jokatu duela pentsatzen dute fisikari eta astronomoek. Beraz sormenaren adibideak leku askotan aurki ditzakegu, ez bakarrik giza jokoetan.

Baina guri giza jarrerak dira interesatzen zaizkigunak, beraz militantzia ereduetan sormenaren garrantziaz ohartzeko lanetan, ikuspuntua zehaztuko dugu, sormena ez da bakarrik dimentsio artistikoan aplikatzen den zoezer eta erronka berriei aurre egiteko balio digu. Beraz, eta hemen ere militantzia eredu guztiek, mutur batetik bestera joanda, sormena erabiltzen dute, eta erabili izan dute haien ibilbideetan, batzuetan akaso oharkabean edo oso kontziente izan gabe. Erakunde armatu batek 5 hamarkadetan zehar bi estaturi modu klandestinoan aurre egiteko, nahi edo ez, sormena erabili beharko zuen bere lan egiteko moduak sortzeko, sarekadetan oinarriturik.

berregiteko, modu berriak sortzeko, baina GKE batek ere sormena erabiltzen du bazkide bila kalera irten baino lehen, nola egingo duen pentsatu eta garatzerako orduan. Beraz, Sormenak erronkei aurre egiten laguntzen gaituen heinean, ezinbesteko tresna bihurtzen da militantzian eta askotan gure burua “kreatiboa” dela pentsatu barik kreatibitatea, sormena, aplikatzen dugu gure militantzietan.

#### 4. ZENBAIT ERREFERENTE

Gure herrian zorionez erreferente asko aurki ditzakegu baina ez da nire asmoa zerrenda bat egitea, gutxi batzuen inguruan hausnartzea baizik. Lehendabizi euskalgintza eta euskararen aldeko mugimendua aipatuko nuke. Frankismoan sortu, garatu eta gaur egun bizirik eta modu aktiboan jarraitzen duen mugimendu zabala eta esparru anitzak lantzen dituena. Garai haietan, politika egitea hain zaila izanda, kultur esparrua erabili zuten euskara berpiztearen borrokan. Hizkuntzatik hasita eta bere bateratze prozesuan parte hartu zutenak, lehenengo ikastolak, euskara irakasteko modu klandestinoak (debekatuta baitzegoen), euskal nortasunaren zabalkunde kulturala, lehenengo euskal literatura, eta musika garaikideak, folklore eta ohitura zaharren berpizte eta indartzea. Guzti hauek, eta askoz gehiago, euskararen aldeko militante izan ziren eta guztiak sortzaileak, ez bakarrik Azkue edo Txillardegi, Aresti eta Laboa, Iriondo edo Lete. Hauek “sortzaile”-tzat ditugunak oso paper importantea jokatu bazuten ere, besteentzako erreferente bihurtu ziren, hizkuntzaren erabilera artistikoa, hizkuntza bera indartu zuen, zabaltzen lagundu, herriaren desio, sentimendu eta historia eta istorioak zabaltzen lagundu zuen, modu batean mugimendu heterodoxoa kohesionatzen laguntzen zuen. Hala ere beste milaka pertsona anonimo sortzaileak ere izan ziren euskararen aldeko mugimenduan ez bakarrik sormen artistikoari ekiten ziotenak. Horregatik gaur-egunerarte iraun du mugimenduak, erronkei eta garai ezberdinei egokitzen jakin duelako. Eta irauteko grina hori sormen kulturalarekin nahasten denean emaitza guztiz emankorra izan ohi da, adibideak, musika, literatura, arte plastikoak, antzerkia, dantza, bertsojaritza, komikigintza... Euskaraz edota euskal ohituren eraginaz sortzen dira gaur egun gure herriko txoko guztietan. Gainera esperientzia hauetako asko ta asko egitura herrikoietatik jaiotzen dira, ez instituzioen edo enpresen ekimenetatik, eta hau aurretik egindako lanaren fruitua da.

#### 5. UMOREAREN ERREFERENTEAK

Azaldu dugunez umorearen erabilpena ez da sormenarekin gertatzen denaren antzekoa, hau da, ezin dugu umorea oharkabean erabili, umorea nahita erabiltzen den tresna da, akaso erraztasuna izan dezakegu erabiltzeko baina asmoa jarri behar diogu. Eta herrigintzan umorea tresna bezala erabili dutenak ere badira gure herrian.

Hasteko EMK-k ateratako afixa hauek gogora ekarri nahi nituzke, garai latzetan eta arazo mingarrien aurrean kritika politikoa egiteko umorea erabili zuten, politikariei, agintariei eta egoera politiko berari kaña sartzeko, garai horiek modu aktiboan bizitakoek seguru gogoratzen dituztela, oso modu simple eta umoretsuan, egoera zail eta konplexu baten islada ematen zutelako, parodia bera kritika zorrotza izanik. AHT-aren aurkako borrokan halako eredu dibertigarriak ere aurkitu ditugu.



Hala ere egoera sozial eta politikoa azaldu eta salatzerako orduan ez ditugu adibide asko aurkitzen, ematen du umoreak esparru honetatik kanpo behar zuela, esparru pribatuan akaso bai baina jendartearen aurkezteko eragileek ez dutela umorea egokitzen hartu, agian gaia garrantzitsuegia zelakoan, hala ere gauza inportanteak ezin ditugu umorearekin ere landu?

Jarrera hau apurtzen mugimendu antimilitaristak lagundu zuen, 90ko hamarkadaren hasiera eta erdialdean gazte asko kartzelaratuak izan ziren zerbitzu militarri uko egiteagatik. Uko egite hori mugimenduaren dinamika bat zen jendartearen zabaltzen zutena, bazekiten ondorio latsa zekarrela, hala ere umoretsu eta alaitsu egiten zuten, bai intsumisiorako deia bai haien kartzeleratzeak, gertaera publikoa bihurtuz, beti modu baikorrean (nahiz eta tentsio egoera asko bizi). Pentsatzen zutelako haien dinamikak indartzeko eta jendartearen babesa jasotzeko diskurtso eta jarrera baikorrak emaitza hobekak emango zituela, ejerzitua eta militarismoaren aurkako sentimendua oso errotuta zegoen jendartearen.

Ildo honetan ere beste adibide bat jarri nahi dut, nola eranginkorra den mekanismo bat errepikatzearen bitartez aspergarria bihurtu daiteke eta bere eraginkortasuna galdu. Zenbait egoera sozial salatzeke erabili izan den mekanismoa parodiarena izan da, talde askok erabilitakoa, zenbait egoera ikustarazteko edo zenbait eragileren jarrera salatzeke, bankari eta politikarien parodia nazkatzeraino erabili da eta horregatik gaur egun ez du duela 20

urte zuen eragin berbera, horregatik ez da bakarrik umore erabiltzea, baizik eta umoreari sormena aplikatu eta garai eta erronka berriei egokitzea.

Egokitze hori oso modu irudimentsuan egin duena bertsolaritza izan da, lehen azaldu dugunez euskararen aldeko mugimenduaren parte den bertsolaritzak jakin izan du garai ezberdinetara egokitu, bestelako bertsolaritza txapelketen final saioetara erreparatzea besterik ez dago.

Berez eta esan ez badugu ere, bertsolaritza begirada umoretsu hori modu artistikoan adierazteko euskal kulturak duen baliabidea da, beraz, aztergai ditugun bi ideiak lotzen dira, sormena eta umorea eta beti herrigintzaren alde, bertsolaria herrikoa delako, ez gobernuarena, ez enpresa batena.

Bertsolaritzak bere gaitasuna herrigintzaren alde jartzen jakin izan du eta horretaz gain garai bakoitzaren adierazpen artistiko ezberdinekin nahasten jakin izan du, bere errepertorioa aberastuz eta jende eta zale gehiago batuz. Bertsolaria euskal bufoi garaikidea izan da plazaz plaza egoera sozial eta politikoaren hausnarketak egiten, pertsonaia ezagunen trufa, giza jokabideen inguruko parodia eta trufa egiten, beti umoretsu, batzuetan triste edo poetiko baina beti zorrotz. Eta gainera musika taldeekin elkartu da, rap-ero eta hip-hop-eroekin, antzerkira ere hurbildu da, pailazoekin elkartu da, zinemara salto ere egin du, behar izan duenean ortodoxoa izaten jakin du eta behar izan duenean ortodoxia pikutara bidaltzen ere.

Akaso bertsolaritza izan daiteke herrigintzaren sormena eta umorea aplikatzearen paradigma argienetako bat.



Kazetaritzan zenbait adibide argi aurkitzen ditugu ere, aipatzearen, Tasio, zenbat urte darama komiki simple baten bidez potereari trufa eta egoera sozialen salaketa egiten? Tasio erreferente argi da gurean eraginkorra da bere lan politikoa? Bere ekarpena euskal herrigintzari? Gutxi ukatuko dute hau. Berriago den adibide bat, La gallina baskarena izan daiteke kritika politikoa lantzen duen aldizkaria umore absurdo eta parodiaren bitartez, akaso bide hau beste batzuk bezain eraginkorra izan daiteke bilatzen dena lortzeko.

Aipatuko dut ere muturrean kokatzen den TMEO-ren adibidea urte pilo daramatzalako, 25 alegia, komikigintzatik umorea eta satira lantzen, hauek adibidez politikoki onargarriaren marra aspaldi sudurretik sartu zuten.



Adibide eta erreferente gehiago daude, askoz gehiago, baina bueno hauek izendatu ditut, gehiago joango dira agertzen, bestela zerrenda hutsean geratuko da hausnarketa behar duena.

## 6. PRAKTIKAN GAUR EGUN

Erreferenteak eta ohitura baditugula argi dago eta Euskal herrian osoan zehar gero eta esperientzi gehiago sortzen direla erreferente nagusietatik aparte baina bere inguruetan eragin nabaria dutenak. Gero eta onartuagoak daude zenbait adierazpen artistiko jendartean eta herri ekimenetan duten presentzia areagotu egiten da pixkanaka.

Baina ematen du batzuetan herrigintzaren aplikatzeko zailtasunak ematen direla. Batzuetan, barne mailan beldurra eta erresistentziak gertatzen dira aldagetak martxan jartzeari, lan egiteko modu berriak frogatzeari, batzutan talde txiki zein haundietan "makinaria" mugitzea kosta egiten zaigu eta uste dut beldur hori, zentzu batean ortodoxia hori dela sormena eta umorearen aplikazioaren etsairik nagusia.

Zenbait sektoreetan ez dago onartuta umoreak edo sormenak duten potentziala, taldeen dinamikak sendotzeko, jendartearen atxikimendua lortzeko, militante berriak hurbilazteko, zenbait diagnosi egiteko.... Eta indar hau onartzen ez zaion bitartean ba bigarren mailako tresna izaten jarraituko du herrigintzaren lehengo linean egon barik.

## **7. SENDOTU BEHARREKOAK**

Asko izan daitezke sendotu beharreko esparruak baina bakoitzak hausnartu behar du bere taldearen baitan errealitate propioak, baina orokorrean herrigintzak duen erronka garrantzitsu bat espazio propioa da, urrunetik datorren borroka da eta gaur egun edozein txokotan pizten dena. Ezinbestekoa zaigu herri mugimeduari gure espazio fisiko propioak sortu, indartu eta MANTENTZEA, hauek izango direlako gure jardueraren erreferenteak.

Potereak (bere aurpegi anitzekin) guztiz konsziente da honen garrantziaz, horregatik azkenengo hamarkadan borroka handia egon da esparru honetan, kalearen (espazio publikoa) erabileraren etengabeko murrizketa, adierazpen artistiko ezberdinen azpiegituren kudeaketa, jai herrikoien pribatizazio saiakerak, gaztetxeen huste ugariak, etab.

Adibide hauek dira herri mugimenduen jarduerari botereak ematen dien erantzuna, baina ildo horretan sormena aplikatu eta erronka honi irtenbide berriak bilatu beharko dizkiogu.

Jai herrikoiak herriak duen mekanismo sozializatzaile onena izan daiteke, elkar aurkitzeko mekanismo ezin hobea, gure baitan ematen diren adierazpen artistikoei jendartearen zabaltzeko aukera ematen diena, kultura sortuz, sentzu zabalean, komunitatea eta belaunaldi ezberdinen arteko harremanak sendotuz, kritika eta salaketa sozialerako eremua sortuz, horrez gain ere militantzia ezberdinen jarraikortasuna ahalbideratzen duen dinamika da, herriaren parte izatea zerbait erakargarria bihurtzen laguntzen du. Beraz jaiak badira herriak duen espazio propioa, mantendu behar duguna, urtero urtero indartu eta aberastu eta zenbait kasutan indar pribatizatzaileen aurrean defendatu.

Baina jaiak urtean behin dira eta urtean zehar ere espazioak behar ditugu. Tamalez ohitu gara talde bakoitzak bere lokala duela ikustera, ez da beti horrela baina sarri gertatzen da hau, bakoitzak bere lokaltxo aurkitu eta bere dinamikan sartzen da, askotan ere, lokal hauek ez dute jendartearen zabaltzeko balio eta dinamikak oraindik itxiagoak dira, beste taldeekin eta jendartearekin harremana egutegi zehatz batera mugatzen da. Tamalez diot frogatu delako talde ezberdinek espazio bera erabiltzen dutenean sortzen diren dinamikak (nahiz eta dena erraza ez izan) asko aberasgarriagoak direla, eta hona hemen gaztetxeen, edo zenbait gaztetxeen adibideak.

Espazio fisikoak herri edo auzo baten beharizan sozial eta kulturaleri erantzuten dienean eta talde ezberdinen jarduera gune bihurtzen denean hortik sortzen dena izugarria izaten ohi da, adibideak baditugu, Iruña, Gasteiz edota kukutzako gaztetxeak, baita herri txikiagoetan dauden gaztetxe asko lan hori bete dute. Gazteriaren bilgune eta bere gogoan adierazpen, amets fabrikak, sormena eta iharduera soziala, kulturala, politikoa azken finean, nahi ala ez, txoko guztietatik proiektatzen duena, bere inguruarekin lotzen eta hurbileko sare sozialean integratzen jakin duenean izugarriko emaitzak eman dituena.

Baina ahulguneak ere baditu mugimendu honek eta haietariko bat, mantentzearena da, gaztetxeak batez ere okupazioaren bidez lortu dira ez administrazioek emandako erraztasunengatik, beraz, lehenago eta geroxeago desalojoak etortzen dira eta haiekin dinamikak indartu baino, errutinak errepikatzea, askotan indar asko xahutuz. Horregaitik, nere iritziz, gaur dugun erronketako bat balio anitzak dituen espazio propio mantentzearena da, balio anitzak ez bakarrik talde baten edo biren dinamikak ahalbideratzen dituen espazioa baizik eta erreferente bihurtzeko aukerak dituena, ekimen ezberdinak jasotzeko gaitasuna duena azken finean lehen esan dugun moduan gure herria edo auzoko bizitza soziala eta kulturalaren beharrak asetuko dituena. Eta noski erabaki politikoak diren husteen eraginaren kanpo mantendu behar ditugunak.

Arazoak, pila, eta eztabaida sakona, baina nik ideia luzatu besterik ez dut egiten, gero bakoitzak bere inguru eta esparruan behar duena egingo du, baina duda barik espazio hauek herri mugimendua indartzen dute, jendartearekiko lotura indartu egiten dute, herritik sortutako adierazpen artistikoak, tradizionalak, garaikideak, abangoardiakoak, herrikoiak, guztiak biderkatzen ditu eta herri mugimenduaren etorkizuna segurtatzen du.

## **8. BESTE ZENBAIT ERRONKA**

Ikus dezakegunez sormen artistikoan garapena eta umorearen erabilera herri mugimenduen garatze eta indartze prozesuari lotuta dago, mugimendu bakoitzak dimentsio hauei ematen dien garrantziaren arabera, ikusi dugu bakoitzak bere beharrak dituela, sormenak adibidez



- Espazio fisikoak behar ditu disziplina ezberdinetara egokituta
- Jendartean zabaldua izateko aukerak
- Esparru ezberdinak harreman zuzenean egon behar dute
- Belaunaldi ezberdien arteko harremana ahalbideratu
- Gethoa gainditu eta jendartera konplexu eta beldur barik atera

Umoreak aldiz bete behar batzuk izango ditu baina zuzenki lotuta egongo dira mugimenduen egoerari, bestela jasoko dugun umore bakarra, bide komertzialetatik etorriko zaiguna izango da.



- Jendartean zabaltzeko une eta gunee aproposak
- Politikagintzan umorearen erabilpenaren aldeko apostu sendoa
- Erreferenteak sortu
- Euskarri berrien bilaketa eta sendotzea
- Teknologia berrien erabilpena
- Gethotik atara

Hala ere erronka hauei aurre egiten hasteko uste dut lehendabizi adierazpen artistikoen eta umorearen erabilgarritasuna onartu beharko dela herri mugimenduan eta hemendik aurrera pausuak ematen jarraitu.

### **BERAZ...**

Herri mugimenduak bere ibilbidean sormena garatzen jarraitu beharko du, unibertsoak egingo duen moduan, baina lehenengoaren zenbait erronken aurrean nere ustez sormen artistikoaren eta umorearen erabilera ezinbestekoak izango dira eta beharrezkoa izango da ere hauen onurak lehenbailehen onartzea gero eta sarriago eramateko praktikara. Euskal herriak gaur egun dituen erronken aurrean adierazpen artistikoa eta umorea lantzen dutenen ekarpenak guztiz beharrezkoak izango dira, potere ezberdinek, merkatuaren indarrek duten inertzia eta inposaketan aurrean, geldirik eta alienaturik nahi duten herria mugimendu etengabea egon dadin, mugimendu sortzaile hori delako gure bide bakarra.






**Bilerak eta parekidetasuna**

**UEU**  
(2012/07/09)

**Marije Apodaka**

maitasuna  
sentimenduak  
parekidetasuna  
balioak  
jarduera  
elkarrekintza  
pertsonek  
taldea  
liderrak  
rolak

**ZER EGINGO DUGU?**



jendea




Genero-rolak



Talde-rolak

## Zer da bilera???


**Bilera = ekosistema baten tresna**



**Aurrez aurreko bilera edo bilera birtuala:  
gaitasun eta baliabide desberdinak**

## pertsonak: ikuspegi holistikoa

*"Persona da gorputza eta buruaren artean oreka bilatzen duen entitate OSO bat; osotasun horretan alde kognitiboak, fisikoak eta emozionalak elkar eragiten dute testuinguru zehatz batean. Entitate horrek, prozesu psikosozial baten ondorioz, identitatea eta autonomia topatu nahidu".*



## pertsonak: taldea

### DEFINIZIOA:

Elkarrekintza afektiboak gertatzen diren pertsonen multzoa.

Horretan, partaide guztiak talde-identitatea eta pertenentzia-sentimendua garatzen dituzte.

Horrez gain, taldekide guztiak taldean dauden helburuak, arauak, funtzioak eta erantzukizunak dakizkitez.



•**Taldea:** Pertsonak, elkarrekintza, bizipenak, helburuak, parte-hartzea, talde-kontzientzia

•**Kolektiboa:** Pertsonak, baloreak, arau sozialak (elkarrekintzarik ez)

•**Kategoria soziala:** Pertsonak, arau sozialak (balore eta elkarrekintzarik ez)

### Talde-motak:

-**Tamainaren** arabera: handiak-ertainak-txikiak

-**Atxikimenduaren** arabera: lehenengo mailakoa-bigarren mailakoa

-**Eginkizun psikosozialaren** arabera: pertenenziakoa-erreferentziakoa

-**Erakundetze-mailaren** arabera: formalak-informalak

-**Helburuen** arabera: lanekoa-terapeutikoa-aisialdikoa

-**Identitatearen** arabera: norberarena-besteena

## pertsona K eta taldearen arloak

### Talde-identitatea, botere-harremanak eta jarduera

#### Arlo sozioemotionala:

- Identitateak
- Emozioak eta sentimenduak: identifikatu-ulertu-kudeatu
- Ingurune fisikoa eta pertsonala:
  - talde-giroa
  - elkarren zaintza eta gatazkak
- Parte-hartzaileen ezaugarriak
  - norbere esperientzia
  - bizi-zikloa
  - sexuak, generoak, adina, jatorria...
- Elkarrekintza eta komunikazio-estiloa
- Eduki sinbolikoa: estereotipoak, aurreiritziak

#### Lanaren arloa:

- Helburuak eta emaitzak: proiektua eta produktuak
- Egiturak: antolatze sistema
- Baliabideak: ekonomikoak, pertsonak, guneak...
- Talde-kultura:
  - arau, balio eta pentsamoldeen multzoa
  - botere-, antolatze- eta kontrol-egiturak
  - rolak:
    - Talde-integrazioa eta mantentzea errazten dutenak
    - Taldearen oreka eta lana oztopatzen dituzten rolak
    - Taldearen lana eta proiektua errazten duten rolak
- lan-metodoak



pertsonak: harremanak

## Elkarrekintzaren ondorioz pertsonen artean sortzen diren lotura afektiboak

denbora | espazioa | komunikazioa | elkarrekintza

- Taldeetan alderdi informala
- Ikusezinak baina beti
- Baldintzatuak eta baldintzatzaileak
- Pertsonak jokoan jartzen du bere burua

emozioak

elkar ezagutu

atxikimendua

Bilerak eta genero ikuspegia

Dimentsio fisikoa:  
sexuak

Dimentsio soziala: lan-  
banaketa

Dimentsio psikologikoa:  
identitatea

## Bilerak eta parekidetasuna

- Gaur egun, emakumea edo gizona izateak baldintzatu egiten du bileretan aritzea, generoen sozializazioa desberdina delako.
- Patriarkatuak ezartzen dituen hierarkia sozialek bilerak baldintzatzen dituzte, batik bat elementu hauek: norbere identitatea, rolen banaketa, elkarrekintza, lidergoa, komunikazioa, pentsamendu kolektiboa, pertsonen zaintza, satisfazioaren pertzepzioak, harremanak, eginkizunak...
- Talde-harremanetan eta funtzionamenduan genero arteko parekotasunik eta orekarik ez dago, abiapuntua desberdina delako.
- Emakume guztiak eta gizon guztiak haien artean ez dira berdinak. Gainera, badira horien artean estereotipo horietatik kanpo dauden pertsonak; horietariko batzuek, adibidez, diskriminazioak alboratzeko ezaugarri pertsonalak dituzte, genero-marka gainditu baitute —kolektibo transgeneroak, kasu—.
- Genero tradizionalak gainditzen dituzten talde sozialak badira.
- Taldeen aritzeak, generoen markak gainditzeko, hau erraz dezake: hainbat gaitasun jorratzea, norbera ahalduntzea, berdintasun-printzipioetan harremanak izatea.

zer-nolako bilerak?

## Bilerarik?



# zer-nolako bilerak?


Planifikazioa
Zertarako: gaia edo arazoa
Zergatik: beharizana
Nortzuk: partaideak
Zenbat: errentagarritasuna

Antolakuntza
Nola: bilera-mota
Zerekin: gai-ordena, gidoia, dokumentazioa, ...
Noiz: denbora
Non: lekua eta azpiegitura

Programazioa
Aurrekariak: justifikazioa, kokapena
Gaiaren planteamendua
Helburuak zehaztu
Metodoa: prozesuaren dinamika

Exekuzioa
Deialdia
Antolakuntza (gela, bitartekoak...)
Konprobazioa

# Zertarako egiten dugu bilera?



# Bilerak


Bilera lan-talde baten **portaeraren funtsezko unitatea** da, berez, taldean egindako ezaugarri da. Komunikazioa eta koordinazioa hobetzeko tresnak diren heinean, bilerak funtsezko tresnak izan daitezke talde-lanean.

Bilerak **eraginkor** egiteko hainbat ezagutza eta trebetasun eduki behar dira:

- taldeari eta talde-fenomenoari buruzko ezagutzak
- dinamizatzailearen tipologiei edota funtzioei buruzko ezagutzak
- lantaldearen inguruko ezagutzak

BILEREN ABANTAILAK	ARAZOAK
<ul style="list-style-type: none"> <li>• bileretan ikuspuntu desberdinak agertzen dira eta erabaki bateratuak errazago har daitezke</li> <li>• denbora aprobetxatuz gero, oso eraginkorrak dira</li> <li>• partaideen trebakuntza hobetzen da</li> <li>• erakundea osotasunean ikustea errazten dute</li> <li>• lankidetzaren giroa, koordinazioa eta kohesioa lantzeko balio dute</li> <li>• motibazioa areagotu dezakete</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• askotan, astunak, alferrikakoak edo hutsalak dira</li> <li>• gogoia galtzea eta porrot-sentimendua azalertzeko arriskua sor daiteke</li> <li>• helburutik urruntzeko arriskua egon daiteke</li> </ul>
Bilera sinpleak	Bilera konplexuak
<ul style="list-style-type: none"> <li>▶ <b>Informazio-bilerak:</b> helburua da gaiaren inguruko datuak eman eta jasotzea. Hauetan, feedback-a erabiltzea oso garrantzitsua da, jakiteko ea mezua ondo heldu den.</li> <li>▶ <b>Ideiak sortzeko bilerak:</b> helburua da ideiak eman, sortu eta hedatzea.</li> <li>▶ <b>Tertulia</b> libreetan helburua da gai baten inguruko ekarpen libreak egitea; gehienetan, sakondu gabe.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>▶ <b>Koordinazio-bilerak:</b> gaia azaldu ondoren, partaide bakoitzak duen informazioa eskaintzen du, eta informazio hori landu egiten da.</li> <li>▶ <b>Araoak konpontzeko bilerak:</b> helburua da arazo bat jorratu eta konpontzea. Bilera horietan hau ondo jorratu behar da: arazoa egoki deskribatu, informazioaren bidez irtenbideak sortu, irtenbide horiek baloratu, horietariko bat aukeratu eta erabakitakoa gauzatu.</li> </ul>

## Bilerak: parte hartzeko baldintzak



# Guztiok aukera berdinak ?



## Bilerak: ROLAK

Talde-integrazioa mantentzeko rolak	Lana eta proiektua errazten dituzten rolak	Integrazioa eta lana oztopatzen dituzten rolak
▶ Estimulazailea	▶ Hasi eta bultzatzen duena	▶ Erasotzen duena
▶ Kontziliagarria	▶ Informazioa bilatzen duena	▶ Blokeatzen duena
▶ Amore ematen duena	▶ Iritziak bilatzen dituena	▶ Norbere mesederako aritzen dena.
▶ Komunikazioa errazten duena	▶ Iritzia ematen duena	▶ “Harroa”
▶ Arautzen duena edo berritzen duena	▶ Informatzen duena	▶ Konpromisorik gabekoa
▶ Behatzen eta komentatzen duena	▶ Egiten duena	▶ Menderatzailea
▶ Jarraitzailea	▶ Koordinatzen duena	▶ Laguntza bilatzen duena
	▶ Orientatzen duena	
	▶ Ebaluatu eta kritikatzten duena	
	▶ Dinamizatzen duena	
	▶ Prozedura teknikoak menperatzen dituena	
	▶ Jasotzen duena	

## Bilerak: ROLAK

Baina ezin ditugu ahaztu generoek sortzen eta mantentzen dituzten rolak eta estereotipoak; izan ere, bileretan martxan jarriko dira, inkontzienteki. Hori dela eta, beti aintzat hartu beharko da zer behar duen taldeak, zer pertsonak, zer eskaintzen duen taldeak genero-rolak saihesteko, eta zer egin dezakeen pertsona bakoitzak bere gaitasunen arabera.

Taldean aritzeak erraz dezake horietako rol batzuk ikastea, eta, horri esker, ahalduz indibiduala eta kolektiboa sustatzen da; alegia, generoak ezarritako rolak alboratzea, eta berriak bereganatzea bultzatzen du. Horrela, botere pertsonala, eta ondorioz kolektiboa, areagotzen da, hainbat gaitasun berri garatzen direlako, eta talde-harreman ez-hierarkikoak sor daitezkeelako. Baina horretarako, metodologia egokia pentsatu eta planifikatu behar da. Adibidez, honako hau egin daiteke:

- Rolak eta ardurak txandakatu, elkarlana eta erantzukizuna sustatzeko. Rol horiek funtzionalak izan behar dira, hau da, talde-lanaren funtzionamendurako egokiak.
- Guztien iritzia kontuan izan, taldekide guztiak protagonismo bera izateko —horretarako, talde-lana eta parte-hartze teknikak erabili behar dira—.
- Gaien arabera eta taldeen arabera, taldekate-irizpide ezberdinak erabili, hierarkiak neutralizatzeko, adibidez: zoria, emakume eta gizonak nahastuta, berezita, txandaka, partaideek nahi duten moduan...
- Kargu bakoitzaren zereginak eta eskubideak ondo definituta izan, funtzioak ondo betetzeko eta betearazteko, adibidez: koordinatzaileak, bozeramailea eta behatzailea, idazkaria, materialaren arduraduna...
- Talde txikiak, handiak eta bakarkako lana erabili, jendea eroso eta gustura sentiarazteko, eta haiengandik onena ateratzeko. Horrek entrenamendua eskatzen du, beraz, partaideak trebatzeko estrategiak planifikatuko dira.
- Talde-arauak iurratu, harremanen cinarriak finkatzeko.

## Zer da komunikazioa bilera batean?

- Komunikazioa da harreman-prozesu bat, zirkularra, konplexu eta dinamikoa.
- Komunikazio-ekintza da elkarren arteko harremanetan antolatutako unitate osoa.
- Ekintza hori, gutxienez, bi kideren arteko solasketan gertatzen da.
- Solaskidetzat giza biziaren funtsezko egitatea da, eta bileretan are gehiago. Ez dago bilerarik solasketa izaten ez denik.

Bilera batean komunikazioaren osagaiak:



## Komunikazioan kontuan hartzekoak

Bilera batean komunikazioa eraginkorra izan dadin, aldagai hauek identifikatu, egokitu eta zuzen kudeatzen jakin beharko genuke :

### • Alderdi psikologikoak:

- proiektzio-mekanismoak: horiek sortzen dira beste pertsona baten pentsamenduek eta gogoek norberarekin bat egiten dutenean, edo pentsamendu horiek barneratzen ditugunean
- defentsarako mekanismoak: horiek pizten dira norberaren barne-oreka arriskuan dagoenean, edo norbere balioak, arauak, ideologia... zalantzan jartzen direnean.

• Alderdi kognitiboak: informazioa jaso eta antolatzeke sistemari dagokio, baita irudikapen- eta ezagupen-sistemei ere (jarrerak, iritziak, balioak, arauak...)

• Alderdi sozialak: rola, gizarte-estatusak, aurreiritziak eta estereotipoak sartzen dira hauetan.

Gainera, komunikazio egokiarekin lotuta, bileretan beste elementu hauek ere kontuan hartu behar dira:

• Hizkuntzako hitzezko sistemak: ahozkoa eta idatzizkoa (bileretan hitzak erabiltzen dira behin eta berriro).

• Hizkuntzako ez-hitzezko sistemak: hizkuntza-portaera da (intonazioa, tonua, azentua, bolumena...)

• Hizkuntzaz besteko ez-hitzezko sistemak: ahoskera, isiluneak, barreak, soinuak...

• Hitez besteko sistemak: kinesia —gorputz-mugimenduak eta adierazpenak—, proxemia, gorputzaren ezagutza fisikoa, pertsonen erakargarritasuna, artefaktuak —lurrinak, jantziak, makillake, tatuajeak...—, inguruak eta giroak, ikonoak, azpiegitura fisikoa eta abar.

## Hizkuntzaren erabilera sexista

Hizkuntzaren erabilera sexista izango da, hau agertzen bada:

- **Sexismo linguistikoa:** hitzak edo esamoldeak direla-eta, baztertzailerak diren mezuei dagokie — besteak beste, mamala, txatxala, urdanga, mari-gizon, mari-zikin, mari-maistra edo horrelakoak esatea—.
- **Sexismo soziala:** esateko moduari baino areago, esaten denari dagokio —adibidez, horrelakoak esatea: “emakumeek umeak izateko baino ez dute balio” —.
- **Androzentrismoa:** gizonak lehenesten eta onesten ditu —esate baterako, “ikasleak emaztegaiekin joan daitezke”, ikasleen artean ez daude emakumerik?, lesbianak, akaso?—. Androzentrismoan gizonezkoak dira jendartearen kide osoak, haiek dira egitura eta antolakunde sozialetan aktore nagusiak edo bakarrak, eta haiek dira, halaber, arauak egiterakoan erreferentzia nagusiak.





## Komunikazio eraginkorra

### Komunikazio jarrerak

	<i>Zertan diren</i>	<i>Besteari zer eragiten dioten</i>
<i>Ebaluatze jarrera</i>	Bestearen diskurtsoari edota jokaerari on edo txarto iritzi.	Negatiboa bada: erantzun oldarkorra, edo komunikazioa ixtea. Positiboa: feedback pizgarria.
<i>Interpretatze jarrera</i>	Bestearen diskurtsoa edota jokaera azaldu eta beraren arrazoiak aditzera eman.	Interpretazioa okerra edo arinegia bada: komunikazioa moztea. Komunikazioa kanalizatzea, interpretatzaileak eman nahi dion zentzua ematea.
<i>Laguntze jarrera</i>	Konponbideak eskainiz mintzagaia aldatu. Arazoak gutxietsi nahian bestea gutxietsi.	Komunikazioa moztea, erantzun oldarkorra, komunikazioa kanalizatzea.
<i>Galdetze jarrera</i>	Bestearen diskurtso edota jokaeraz argibide gehiago lortu. Besteari aditu.	Erantzun hutsalak ematea. Informazioa maneiatzea, moldatzea. Jakin min maltzurra sumatzea.
<i>Ulertze jarrera</i>	Juzgatu gabe, ulertzen saiatu.	Giro ona sorraraztea (mehatxuak gutxitu). Jarraitzea eta sakontzea.



## Bilerak eta espazioa

	<ul style="list-style-type: none"> <li>▶ Aurkezpenetarako, hitzaldietarako, informatzeko forma</li> <li>▶ Oinarrizko elkarrekintza, feed-backik ez.</li> <li>▶ Gidari bakarra</li> <li>▶ Talde handiak</li> </ul>
	<ul style="list-style-type: none"> <li>▶ Negoziatzeko, hainbat aldetatik maila bereko informazioa elkartrukatzeko</li> <li>▶ Elkarrekintza formala</li> <li>▶ Kideen artean ez da hierarkiarik irudikatzen; gainera, momentu batean, hierarkiak ezarri nahiz izatekotan, mahaia mugitu daitezke</li> <li>▶ Talde txikiak edo ertainak</li> </ul>
	<ul style="list-style-type: none"> <li>▶ Ikaskuntza-prozesuetan erabili ohi da.</li> <li>▶ Elkarrekintza formala eta hurbila</li> <li>▶ Koordinatzailearen rola oso argi geratzen da (gidaria/liderra)</li> <li>▶ Talde ertaina edo handia</li> </ul>
	<ul style="list-style-type: none"> <li>▶ Ideiak, iritziak eta proposamenak elkartrukatzeko egokia</li> <li>▶ Elkarrekintza sakonak</li> <li>▶ Partaide guztien parte-hartzea errazten du (horizontaltasuna)</li> <li>▶ Biribilean, aulkietan —mahai barik— jesartzen badira, harremana gorputz osoarekin gertatzen da, ez dago inolako elementurik gerritik behera ezkutatzeko.</li> <li>▶ Talde txikiak edo ertainak</li> </ul>

## Bilerak eta denbora

*Denborari dagokionez azpimarratu behar dira hiru elementu hauek: iraupena, ordutegia eta kudeaketa.*

**Iraupena** izango da hauen araberakoak:

- Helburua: informatzeko bilerak arazoak konpontzekoak baino denbora gutxiago beharko du.
- Partaide-kopurua: partaide asko baldin badaude, elkarrekintza gehiago egongo dira; ondorioz, denbora gehiago beharko da.
- Metodologia: teknika parte-hartzaileak erabiltzen badira, denbora gehiago erabili beharko da.
- Koordinatzailearen esperientzia: bileraren gidariak bileren dinamizazioan eskarmentua baldin badauka, gaietan behar besteko denbora erabiliko du, ez gehiagorik.
- Auto-erregulazioa: partaideek baldin badakite interbentzioak kontrolatzen —ez errepikatzen, gaian kokatzen, eztabaida ez-baliagarriak saihesten, protagonismo kaltegarriak alboratzen...—, denbora behar denerako erabiliko da.

**Ordutegia:**

Bileraren ordua aldez aurretik pentsatu behar da partaideen ezaugarrien arabera: disponibilitatea, bizi-zikloa, lan-karga eta abarrak. Oro har, emakumeek enpleguaren arduraz gain, familiarren ardurak dute; beraz, langileen disponibilitatea oso desberdina izan daiteke. Horregatik garrantzitsua da jakitea nortzuk eta zenbat etorriko diren bilerara, zenbat denbora daukagun, zein den helburua eta nola bideratuko dugun bilera.

**Kudeaketa:**

Gainera, denbora ondo kudeatuta egongo da, baldin eta parte hartu beharreko pertsonak egon badira, baldin eta aurreikusitako denboran gai guztiak jorratu badira, edo, baldin eta kideen parte-hartzea orekatsua izan bada. Ikerketa askok demostratu dute talde mistoetan gizonak emakumeek baino denbora gehiago hartzen dutela interbentzioetarako, eta arreta gehiago jartzen zaiola haiek esandakoari. Beraz, era maskulinoak eta diskriminatzaileak baztertu behar dira.



## Bilerak: dinamizatzailea

Bileran, tailerrean edo asanbladan



## Bilerak: dinamizatzailea

Sor daitekeen arazoa	Zelan egin aurre
Badago parte hartu nahi ez duena	Pertsona bat bada, esertzeko gonbidatu eta behaketa lana egin dezan proposatu. Talde bat bada ezetza ematen duena, teknika birformulatu (agian ez da egokia).
Teknika garatzen den bitartean batzuen errieta sortzen da.	Batzu horiek gelatik edo "teknikatik" ateratzen dira, geroago beraiekin hitz egiten da.
Norbait negarrez hasten da edo teknikak antsietatea sortzen dio.	Momentuan tentsioa murriztu behar du dinamizatzaileak. Oso urduri egonez gero, taldekideek konturatu barik, beste nonbaitera joateko gonbidatu, lasaitzeko. Zergatik negar egiten duen edo urduri dagoen jakin behar da, egoera errepika ez dadin.
Teknikan norbait baztertua da.	Teknika eten et ataldeari egoerari buruz pentsarazi, beste teknika bat proposatu.
Teknika amaitu eta gero, taldeak ezkor edo goibel agertzen da.	Motibatze, alaitze, afektibitate tonua igotzeko teknikaren bat proposatu.
Taldekideek gogorik gabe parte hartzen dute.	Ekintza, momentua, taldearen egoera fisikoa aztertu. Animatu. Erritmo arina markatu. Isiltasunak apurtu. Ekarpentzako pertsonalak-intimoak sendotu. Barrea eragin.
Norbaitek teknika bera zalantzan jartzen du.	Hausnarketa egin: arrazoiak dauka?, teknikari beldur dio?, helburua ulertu da?, eta momentuan hori guztia argitu.
Pertsona batek beste bati aurre egiten dio.	Hausnarketa sustatu, errespetua exijitu.
Deialdi orduan ez dago jende guztia.	Jarritako orduan hasi eta taldekideak horrela izango dela ohitu.
Teknika bera ez da ondo ulertzen.	Berritoki guztiak azaldu eta adibideak jarri.
Beste egoera batean bi pertsonen artean egondako arazo bat, oraingo ekintzan agertzen da.	Arazo horrek ekintza oztopatuko ez duela ziurtatu, eta geroago, banandurik pertsona horiekin hitz egin.
Ekintza garatzen den bitartean pertsona batek alde egiten du.	Teknikaren garatzeko ez badu eraginik, jarraitu; bestela, teknika hasia urretik, pertsona guztien presentziaren beharra abisatu.
Aurreikusitako baino jende gehiago dator.	Hau beti aurreikusi eta irtenbidea prestatu.
Jende berria agertzen da.	Pertsona horiek aurkeztu, bizi izandako prozesua kontatu, zer gertatu den, ...
Taldea, dinamizatzaileak aurre ikusten zituen ondorioetara ez da heltzen.	Positiboa bada, indartu; negatiboa izatekotan, galdera zuzenak egin.
Beharrezko material guztia ez dago	Egoera hau aurreikusi, eta momentuan inprobisatu baina aurrera jarraitu.

## Bilerak: dinamizatzailea

### Funtzioak

- Banakako iritziak birformulatzea. Denak besteen iritziak entzutera behartzen ditu eta elkarrekintza bultzatzen du.
- Esandakoa laburbildu.
- Bileraren garapena horrek dituen helburuetara zuzentzen denaz arduratzen da; gaiak sartu eta kokatzen ditu, arauak adosten ditu, jarraitzen direnaz kezkatuz, eta ezustekoan aurrean irtenbideak proposatzen ditu.




### Teknikak:

- **Test-galdera:** *esanahi ezberdinekin erabiltzen den hitza edo kontzeptu bat definitzea.*
- **Gonbidapen zuzena** parte hartzeko.
- **Oihartzun-galdera,** galdera egin duenari bueltatzen zaio, erantzuna berak ematea eskatuz.
- **Errebote-galdera,** partaide batek egindako galdera beste partaide bati bidaltzen zaio.
- **"Reflector"-galdera,** partaide batek egindako galdera talde osoari bidaltzen zaio.
- **Gogorapena:** lehenago egin eta erantzunik gabe gelditutako galdera bat gogoratzen da.
- **"Hemen eta orain" gertatzen denaren azterketa:** *afektuaren ikuspegitik.*

### Momentu zailak:

- **Ixiltasun luzea:** partaide batena, parte hartzeko gonbidapena egiten zaio.
- **Partaide baten parlakeria ezegokia,** bileraren mugak gogorarazi edo moztu eta hitza beste pertsona bati eman.
- **Gaitik desbideratzen direnean,** arazoa kokatzea.
- **Saboteatzaile sistematikoa,** saioa gelditu eta pertsona horrengana zuzenean jo, bere saboteatzeko sistema aurkeztuz.
- **Taldearen ihesak,** ihesa eragiten duen arazoa kokatu eta planteatu, konpontzeko.
- **Taldearen isiltasunak,** isiltasunaren arrazoiak ulertu behar dira eta gero, taldearekin hitz egin.

## BILERA BATEN FASEAK

 PRESTAKETA	 EXEKUZIOA	 ONDORENGOA
<p>-Zein da bileraren helburua? -Noizero bilduko gara? -Nola aprobetxatuko dugu bilera? -Zelan gauzatuko dugu landutakoa? -Partaide egokiak etorriko dira?</p> <p><b>Prestatu beharrekoa:</b> -Partaideak -Gai-ordena -Materiala -Iraupena -Motibazioa -Moderatzailearen lana -Taldekideen parte hartzea</p>	<p><b>Hasiera fasea:</b> -Guztiei harrera egin eta aurkezpena garatu. -Taldearen eta bileraren helburuaren deskribapena -Eztabaidagaiaren aurkezpena -Partaideen papera zehaztapena -Metodologiaren azalpena -Bilera zertarako den partaideei eman: eztabaidarako, iritzia emateko, informatzeko, ...</p> <p><b>Garapena:</b> -Rolen banaketa: moderatzailea, idazkaria, partaideak. -Moderatzea rola, partaidetza, funtzioak, ... -Hizkuntza garbia -Berandu heltzen denari harrera egin. -Gaien lanketa ordenatua eta mugatua. -Esaten dena idatzi edo grabatu. -Sintesia -Momentuko balorazioa (efikazia eta motibazioa) -Hurrengo pausua gogorarazi.</p>	<p>-Akta helarazi -Hurrengo bileraren berri eman -Erabakiak hasi garatzen</p>

## TAILER BATEN FASEAK

		
PRESTAKETA	EXEKUZIOA	ONDORENGOA
<p><b>Planifikazioa:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>-Zein da tailerraren helburua?</li> <li>-Zer bilatzen dugu?</li> <li>-Zelan lortu dezakegu?</li> <li>-Nortzuei luzatu deialdia?</li> <li>-Nola egingo dugu deialdia?</li> <li>-Non egingo dugu? Nolakoa da lekua?</li> <li>-Noiz egingo dugu? Zenbat denbora behar dugu?</li> <li>-Zein material erabiliko dugu?</li> <li>-Materiala lehenago banandu behar da? Nori?</li> <li>-Zelan hitz egingo dugu?</li> </ul> <p><b>Taldea:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>-Zenbat?</li> <li>-Zenbat eta nolako emakume eta zenbat gizon?</li> <li>-Nortzuk falta dira?</li> <li>-Parte hartze prozesuetan ohitura dute?, gustuko dute?</li> <li>-Elkar ezagutzen dugu?</li> <li>-Gauden parte hartze prozesua ezagutzen dute?</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>-Helburuei, pertsoneri, lekuari eta tailer motari dagozkien teknikak erabili</li> <li>-Prozesua: Gradualki, malgutasunez, sortzekoa, interesa piztekoa, motibagarria, atsegina, ...</li> <li>-Zereginera, sektorera eta gaira egokitutako talde-lana</li> <li>-Metodologian oreka</li> <li>-Beharrian pertsonalei, teknikoei eta materialei erantzuna eman.</li> <li>-Esfortua, emaitzak arazoak, irtenbideak, aldaketak, ... ikustarazi.</li> <li>-Aukerak eman: iritzia emateko, pentsatzeko, kolaboratzeko, okertzeko, entzuteko, garen modukoak izateko, ...</li> <li>-Proposamenak, ideiak, adostasunak, emaitzak, ... sustatu, batu eta baloratu.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>-Lanaren eta emaitzen batuketak: laburpenak, argazkiak, bideoak, papelografoak, fitxak, ...</li> <li>-Lanaren deboluzioa: akta, e-posta, balorazioak, pertsoneri eskertu, pendiente geratu dena bideratu, ...</li> <li>-Beharrezkoa izatekotan eta adostuta baldin badago, lanaren zabalpena.</li> </ul>

## ASANBLADA BATEN FASEAK

		
PRESTAKETA	EXEKUZIOA	ONDORENGOA
<p><b>Planifikazioa:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>-Zein da asanbladaren helburua?</li> <li>-Zer bilatzen dugu?</li> <li>-Zelan lortu dezakegu?</li> <li>-Nortzuei luzatu deialdia?</li> <li>-Nola egingo dugu deialdia?</li> <li>-Non egingo dugu? Nolakoa da lekua?</li> <li>-Noiz egingo dugu? Zenbat denbora behar dugu?</li> <li>-Zein material erabiliko dugu?</li> <li>-Materiala lehenago banandu behar da? Nori?</li> <li>-Zelan hitz egingo dugu?</li> </ul> <p><b>Taldea:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>-Zenbat eta nolako emakume eta zenbat gizon?</li> <li>-Nortzuk falta dira?</li> <li>-Asanbladetan ohitura dute?</li> <li>-Komunikazio arauak aurreikusi/ezagutzen dira?</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>-Helburuei, pertsoneri, lekuari eta tailer motari dagozkien teknikak erabili.</li> <li>-Aukerak eman: iritzia emateko, pentsatzeko, kolaboratzeko, okertzeko, entzuteko, garen modukoak izateko, ...</li> <li>-Proposamenak, ideiak, adostasunak, emaitzak, ... sustatu, batu eta baloratu.</li> <li>-Esandakoa laburtzen jakitea.</li> <li>-Akta egitea.</li> <li>-Konpromisoa idaztea.</li> <li>-Behatzailea egotea.</li> <li>-Komunikazio-arauak ezagutarazi eta bete</li> </ul> <p><b>Faseak:</b></p> <ol style="list-style-type: none"> <li>1. Hasiera-harrera</li> <li>2. Aurreko asanbladaren aktaren oniritzia</li> <li>3. Berriak</li> <li>4. Txostenen azalpena</li> <li>5. Gai-ordenaren garapena</li> <li>6. Amaiera: erabakien sintesia, hurrengo pausuak,</li> </ol>	<ul style="list-style-type: none"> <li>-Lanaren eta emaitzen batuketak: laburpenak, argazkiak, bideoak, fitxak, ...</li> <li>-Lanaren deboluzioa: akta, e-posta, balorazioak, pertsoneri eskertu, pendiente geratu dena bideratu, ...</li> <li>-Beharrezkoa izatekotan eta adostuta baldin badago, lanaren zabalpena.</li> </ul>



## Bileretan aukera berdintasuna

<p><b>Pertsonekin</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Pertsona horien ezaugarriak ezagutu: sexua, generoaren ezaugarriak, adina, lanbidea, egoera soziala, familiarra, ...</li> <li>- Egon litekeen genero-diskriminazioa aurreikusi</li> <li>- Informazioa eman eta jaso: gure jarduerak edo proiektuak zelan eragiten die?, ezagutzen dute?, argi dago?, beharretara eta interesetara egokitze da?, zergatik?, genero-karga dago? ...</li> <li>-Erakundeko langileak eta laguntzaileak genero-teorian trebatu</li> <li>-Parekidetasunaren parametroetan eguneroko harremanak sortu</li> <li>-...</li> </ul>
<p><b>Bileren planifikazioan, exekuzioan, ebaluazioan</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>-Abiapuntua aztertu: zein da diskriminazio-egoera geurean?</li> <li>-Egoera sexista gainditzeko helburu esplizituak diseinatu</li> <li>-Parekidetasuna lehentasunen artean sartu</li> <li>-Ekitate sustatzen duen lan-metodologia erabili</li> <li>-Parte-hartze orekatua sustatu</li> <li>-Lan eta ardura banaketa orekatu (lan-karga eta genero-diskriminazioak ekiditeko)</li> <li>-Hizkuntzaren erabilera ez-sexista bermatu</li> <li>-Ebaluazioa: Parekidetasunean gauzatutakoaren inpaktua (negatiboa eta positiboa) aztertu. Emakume eta gizonen desoreka areagotzen du edo gutxitzen du.</li> <li>-...</li> </ul>
<p><b>Harremanetan</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Talde-lana eta lankidetzaz sustatu</li> <li>- Lanetan, roletan eta funtzioetan elkar ardura bermatu</li> <li>-Iritzi eta proposamen guztiak kontuan hartu; gaia aintzat hartu eta ez nork esan edo egiten duen.</li> <li>-...</li> </ul>
<p><b>Erakundeko marko ideologikoan, baliabideetan edota zerbitzuetan</b></p> <p><b>AHAL JAKIN NAHI</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>-Erakundearen dauden araudia, zerbitzuak eta baliabideak ezagutarazi eta erabiltzeko eskubideak bermatzen</li> <li>-Informazio argia, benetakoa eta osoa eman</li> <li>-Esparru guztietan emakumeen ekarpenak ikustarazi eta baloratu. Eragile moduan eragiteko eskubidea aldarrikatu.</li> <li>-Norbere bizitza, enplegua eta familia bateragarri izateko neurriak diseinatu, aplikatu eta ebaluatu (bizi-zikloa eta etxeko esparruaren erantzukizunak kontuan hartuz)</li> <li>-Maskulinitate eta feminitate tradizionalaren islak alboratu</li> <li>-Emakume eta gizon izatearen eredu berriak sozializatu</li> <li>-Aldaketarako ahaleginak eta jardueren emaitza positiboak baloratu eta ikustarazi.</li> <li>-Kultura feminista sozializatu</li> <li>-...</li> </ul>

Eh! Lagunok,

**Mila esker!!!!**

[marijeapodaka@telefonica.net](mailto:marijeapodaka@telefonica.net)

---

# PARTAIDEEN HELBIDEAK

Izen Abizenak	Emaila
Mikel Pikaza Rodriguez	<a href="mailto:karolazirkoa@gmail.com">karolazirkoa@gmail.com</a>
Unai Txurruka Maiztegi	<a href="mailto:unaitxurruka@gmail.com">unaitxurruka@gmail.com</a>
Ainhoa Mendibil	<a href="mailto:komunikazioa@elgoibarkoizarra.com">komunikazioa@elgoibarkoizarra.com</a>
Imanol Larrañaga	<a href="mailto:imanol@elgoibarkoizarra.com">imanol@elgoibarkoizarra.com</a>
Arkaitz Martinez de Albeniz	<a href="mailto:arkalbeniz@gmail.com">arkalbeniz@gmail.com</a>
Tetxu Meabe	<a href="mailto:tmeabe@irakasle.net">tmeabe@irakasle.net</a>
Beñat Jauregi Artola	<a href="mailto:begnatj@gmail.com">begnatj@gmail.com</a> , <a href="mailto:andoaingogaztetxea@gmail.com">andoaingogaztetxea@gmail.com</a>
Xabier Etxebarria	<a href="mailto:xabietxe89@hotmail.com">xabietxe89@hotmail.com</a> , <a href="mailto:tantaztanta@gmail.com">tantaztanta@gmail.com</a>
Marina Sagastizabal	<a href="mailto:marinasagastizabal@gmail.com">marinasagastizabal@gmail.com</a>
Idoia Zengotitabengoa	<a href="mailto:aidoia_zl@hotmail.com">aidoia_zl@hotmail.com</a>
Miren Guillo	<a href="mailto:miren.guillo@gmail.com">miren.guillo@gmail.com</a>
Iñigo Rubert Rodriguez	<a href="mailto:mendiolatik@gmail.com">mendiolatik@gmail.com</a>
Oier Azkarraga	<a href="mailto:oierazkarraga@ymail.com">oierazkarraga@ymail.com</a>
Mikel Gomez	<a href="mailto:gomilla2@hotmail.com">gomilla2@hotmail.com</a>
Amaia Nicholson Gorostiaga	<a href="mailto:amaiamendian@gmail.com">amaiamendian@gmail.com</a>
Uxo Anduaga	<a href="mailto:uxoaanduaga@hotmail.com">uxoaanduaga@hotmail.com</a>
Iker Sarriegi Etxabe	<a href="mailto:txipibi@yahoo.es">txipibi@yahoo.es</a>
Eneko Ibarguren Agirre	<a href="mailto:iazarraitz19@hotmail.com">iazarraitz19@hotmail.com</a>
Iraide Lejarreta Goyarzun	<a href="mailto:iraide_89eh@hotmail.com">iraide_89eh@hotmail.com</a>
Xabi Luke Astigarraga	<a href="mailto:xabiluke@gmail.com">xabiluke@gmail.com</a>
Aingeru	<a href="mailto:aingeru.ms@gmail.com">aingeru.ms@gmail.com</a>
Amaia Aurrekoetxea	<a href="mailto:amaiaaurre@hotmail.com">amaiaaurre@hotmail.com</a>
Olaia Hormaetxe	<a href="mailto:olaiahorma@gmail.com">olaiahorma@gmail.com</a>
Mari Luz Esteban	<a href="mailto:ml.esteban@ehu.es">ml.esteban@ehu.es</a>
Marije Apodaka	<a href="mailto:marijeapodaka@telefonica.net">marijeapodaka@telefonica.net</a>
Igor Ortega	<a href="mailto:iortega@mongragon.edu">iortega@mongragon.edu</a>
Pili Alvarez	<a href="mailto:pilialvarezmoles@gmail.com">pilialvarezmoles@gmail.com</a>
Jokin Azpiazu	<a href="mailto:orokorra@joxemizumalabe.org">orokorra@joxemizumalabe.org</a>
Olatz Dañobeitia	<a href="mailto:lulatxu@gmail.com">lulatxu@gmail.com</a>
Zesar Martinez	<a href="mailto:Zesar.martinez@ehu.es">Zesar.martinez@ehu.es</a>
Andere Ormazabal	<a href="mailto:andereor@hotmail.com">andereor@hotmail.com</a>